

ELKARRIZKETA: AGUSTIN LIZASO / AIA: AIAR BAT ERRUSIAN  
IRITZIA: KORO SARASOLA

# KARKARA

in eta hain aurreratu / 19. urteko / 1998 martxo

79A



# Zubiri-zubiri

# korrika



**KARKARA**

Orio eta Aizko aldizkaria

Kultur etxea

20810 ORIO

Tel. 943 83 15 27

Posta elektronikoa:

karkara@topagunea.jalgi.com

LEGE GONDAILUA 55 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 1.500 ale

**EDITOREA**KARKARA TALDEA  
kultur elkarte**ZUZENDARIA**

Ainara Peña

**ERREDAKZIO TALDEA**Miren Etxeberria,  
Iñigo Fernandez,  
Jakes Goikoetxea,  
Ana G. de Txabarrí,  
Ana Iturain, Iñaki Iturain,  
Nere Manterola, Ainara Peña,  
Jabier Zabaleta**AHARO ERREDAKZIOA**

Eli Lasa

**PUBLIZITATEA**

Ainara Peña

**TESTUEN ZUZENKETA**Iñaki Iturain eta  
Jabier Zabaleta**ALE HONETARO LAGUNTZAILEAK**Eneko Balerdi, Pat Cowie,  
Emakume taldea, Korrikako  
batzarra, Jose Ramon Lizaso**ARGAZTAR**

Ana G. de Txabarrí

**DISEINUA**

AZALA Golo Arana

BARRUKOA Jabier Zabaleta

PUBLIZITATEA Iñigo Gaztañazpi

**AKZEN ORRIALDEKO IRUDIA**

Juan Jose Egibar

**BANATZAILERIA**

Miguel Angel Sanz

**INPRIMATEGIA**

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen  
edota iritzien erantzukizunik.KARKARAN argitaratutakoa berre-  
man daiteke, osorik edo zatika,  
baldin eta iturria aipatzen bada.**BERTSO JARRIAK**  
**Korrikari**

Doinuak: Kanta bezate txoriak eta...

KOlokan dago gure hizkuntza  
norberégandik hasita,  
ta lekukoak esku guztiak  
behar ditu irekita,  
herrigintza ta elkartasuna  
behar dira alda**RR**ika,  
herria eta hizkuntza, biak,  
joan daitezten korri**KA**.

Laino guztien azpitik eta  
muga guztien gainetik,  
Xuaitik hasi ta Aitzondora  
ondoren zubi berretik,  
herrian buelta emango degu  
Saikolara heldu aurretik,  
herri guztia lekuko dela  
ta lekukoa aurretik.

Zazpi t'erdia heldu orduko  
lekukoari jarraika,  
euskara hutsez pasako dugu  
bezperan gau dena nahita,  
eta zeinek ez goizalderarte  
taberna euskaldunak maita,  
berotzen bada korrikan askoz  
hobeto egiten baita.

A-tik hasita Z-raino ta  
Z-tik hasita A-ra,  
denok hitz egin euskaraz eta  
denok maitatu euskara,  
euskal hiztunen euskal ahotik  
Euskal Herria gu gara,  
gu garelako eta gugatik  
azal zaitezte bertara.

KORRIKAKO HERRI BATZORDEA

**1999KO PUBLIZITATE PREZIOAK**

Modulu bat .....	1.500 PTA
Bi modulu .....	3.000 PTA
Hiru modulu .....	4.500 PTA
Lau modulu .....	6.000 PTA
Sei modulu .....	9.000 PTA
Zortzi modulu .....	10.500 PTA
Orrialde erdia .....	13.500 PTA
Orrialde osoa .....	27.000 PTA

Prezio hauek zenbaki  
baterako balio dute.  
Publizitatea urte osorako  
kontratzen dutenei % 10eko  
deskontua egiten zaie prezio  
hauen gainean.

Gipuzkoako Foru Deputazioak  
diruz lagundutako aldizkariaEusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkariaOrioko Udalak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Salatxo abesbatzaren bosgarren urteurrena

Iaz Salatxo Abesbatzak bost urte bete zituen. Hori aitzakiazat hartuta ekitaldi bereziak antolatu genituen, urteroko kontzertuez gain.

Apirilean Elgoibarren eskaini genuen kontzertua, oso gustura, eta eguna umore onean bukatu genuen.

Hurrengo ekitaldia *Abesbatzen arteko Orioko I. Topaketa* izan zen. Topaketa hartan Euskal Herriko hainbat koruk parte hartu zuten. Ekitaldia pozgarria izan zen guretzat, sekulako jendetza hurbildu baitzen, eta ez herrikoak bakarrik. Abesten herrehunetik gora ziren eta antolakuntza ez zen erraza izan, frontoia ez baitzen lekurik egokiena hainbeste jende biltzeko.

Egun hark izan zuen arrakasta ikusita, aurten II. topaketa egitea erabaki dugu: apirilaren 25ean.

Maiatzean Beran izan ginen, eta ekainean, berriz, urtero bezala, San Pedro egunean mezatan abestu genuen.

Uztailaren 31tik abuztuaren 6ra Extremaduran eta Portugalen izan ginen. Alde batetik, nahikoa gogorra izan zen bidaiari; baina, bestetik, elkar hobeto ezagutzeko ere balio izan ziren.

Urrian, Oliten eskaini genuen kontzertua. Azaroan, berriz, Santa Zuzila eguna berezia izan zen, Marina Lertxundi zuzendaria ez baitzen gure artean. Kalez kale bildutako dirua Mitch hurakanak kaltetutakoetara bidali genien.

Salatxokook gauza bat nabarmendu nahi dugu: Marina Lertxundi. Bere lana paregabea izan da urte hauetan eta abesbatzak berari esker iraun du orain arte. Lagun egin dugu hasieran ezezagun genuena. Duen kementa eta lan egiteko indarra eta borondatea paregabeak dira. Edozein opari edo esker on gutxi da bere lana eskertzeko; mila esker guztiarengatik, Marina, eta ez aldatu. Gurekin nahi zaitugu hemendik aurrera ere.

SALATXO ABESBATZA

## Abuelari

Banuen, bai, nik gogoia lerro hauek idazten hasteko, baina...

Antonio Machado hil zela hirurogei urte omen dira gaur; hala dio, behintzat, Iñaki Gabilondok N-1



## Gutunetarako OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAREN buzoian utz daitezke (udaletxe atzeko portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxean). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.jalgi.com

KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAK bere egiten du eskutitzak laburtzeko eskubidea.

errepede ikaragarri hau berriz ere zeharkatzen ari naizen une honetan, Zergatik ote da norbaitez oroitu nahi dugunean beti hil zen egunari erreparatzen diogula? Eta heriotzaz ari naizela, bai, bera datorlit burura: gure *abuela*. Joan den urtarrilaren 29an joan zitzaigun. Goiurik esan zidan bezala, gure osaba Patxiaren ondoan beste izar bat piztuko da. Intzaren esanetan, berriz, zerura joan da erregeak ikustera... Eta berak, *Abuelak, zer esango ote du han goitik?* Bai, badakit. Bere betiko esaldia izango du ahoan: *Mira, mis niñas, puñeteras!*

Eta hau guztia, zertarako? Ba hori. *Abuelari* omenalditxo bat egiteko. Izan ere, odolezkoa ez izanagatik ere, gure umek amona extra bat izan dute. Eta gure gizarte honetan erroak finko mantentzea hain garrantzitsua den une honetan, Segoviatik etorri eta bere sustraiak Orion finkaturiko Felisari esker, *Xelin* edo *Perin* etxea gurea ere bihurtu da. Mila esker, *Abuela*.

MARISA ARRUBARRENA ELIZALDE

## Inauteri jaiak

Txurumuski Orioko aisialdiko talde berriko lagunok, Orion inauteri jaiak galtzen ari zirela-eta, eta ez zegoenez ezer antolatuta, jai bat egitea pentsatu

genuen; eta baita egin ere! Erantzun ezin hobea izan genuen. Haur eta gazteak oso gustura ibili ziren, eta horrek gogoia piztu zigun, Txurumuskiko taldekide garen gutxioi.

Mesedez, pazientzia piska bat eskatzen dugu talde berria garelako. Taldekideak asko murriztu gara; eta, dirarik ez dugunez, poltsikotik jartzen ditugu gure apurrak, horrelako ekintzetarako.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, batetik, Iñaki Gurrutxaga kultur teknikariari, guri laguntzearen interesa jartzen baitu, eta baita Itzala, San Juan Bide eta Tragoxka tabernei, jaiak antolatzeko beren materiala utzi zigtelako.

TXURRUMUSKI TALDEA

## Perikitoa

Etxean, perikito bikote bat genuen. Ez dakigu nola izan den, baina egun batean horietako batek alde egin digu. Geratu den perikitoa nahiko triste dago. Horregatik, norbaitek aurkituko balu, mesedez deitu ezazue telefono honetara: 943 83 42 48. Pista bat emateko, perikitoa gorri-berdea da.

NIEVES ARRUTI

## Gerran hildako Nikasio Uranga

Herriko erregistroaren arduradunak, Joseba Andoni Arrizabalagak, Tarragonako gizon baten kartaren kopia bidali digu. Karta horretan, Antonio Arnau izeneko gizon horrek Espainiako gerran Castellongo Vinarozeko hospital militarrean hil zen Nikasio Uranga Irigoien oriotarrari buruzko informazioa eskatzen du.

Arnau jauna Espainiako gerrari buruzko ikerketa lan bat egiten ari da eta 1939ko urtarrilaren 3an Vinarozen hildako Nikasio Urangaren jaiotze agiriaren kopia bat nahi du eta haren gaineko ahal den informazio guztia. Bere ustetan, Nikasio Orion jaio zen 1909an, eta gurasoak Antonio eta Enriketa omen zituen.

Familiarrek argazkiren bat eta berri zehatzagorik izanez gero, eskertuko omen luke Antoniok emango balio. Horre-tarako prest dagoenak jo dezala guregana.

KARKARA TALDEA

# Zer iruditzen zaizu tabernetako prezioak igotzea?



**JOXE MARI LIZASO**

41 urte

Pasada bat iruditzen zait prezioen igoera hau; baina, hala ere, onartu egingo da. Jendeak ez dio edateari utziko prezioak igo direla eta.

Lotsagarrikeria da bene-no txikitoa 50 pezeta ordaindu beharra.

Egia esan, jendea bi egunetan haserre ibiliko da; baina, gero, berdin-berdin jarraituko da edaten.



**KARMELE OLIDEN**

24 urte

Jeneroen prezioa igo-tzen bada, ondo dago bezeroari ere prezioa igotzea. Baina igotzen ez zaiena ez luketela igo behar iruditzen zait niri.

Jendeak azken finean igual jarraituko du edaten. Lagunartean egoteko ataritzen gara, eta pagatzen jarraituko dugu. Urteroko gauza da prezioena eta urtero moldatzen gara.



**ANDEKA ATXEGA**

22 urte

Urte betean prezioak ez dira igo, eta Zarautzen, adibidez, bi aldiz igo dira. Hemen mantendu egin dira, eta, gero, kolpera igo. Igual pixkanaka-pixkanaka igotzea da egokiena eta ez kolpera igotzea.

Jendeak ez dio edateari utziko, hala ere, horregatik. Hasieran kejutuko dira, baina berdin-berdin edango dute.



**INAXITA MANTEROLA**

61 urte

Niri ez zait gehiegi gustatzen prezioen gorakada hau. Baina, berdin-berdin jarraituko da edaten, gustatzen zaionak ez dio horregatik edateari utziko. Ohiturak aldatzea oso zaila da, eta ordaindu egingo dira prezio berriak ere. Bestalde, ardo berezia dextente igo arren, lehen berezia edaten zuenak, orain ere berezia edango du.

**Orioko Ogia**

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA  
frontea ondoan  
Ifnoa: 943 83 01 89

*Isas* **ondo**

**JATETXEA RESTAURANTE**

*Egunerokq menuak*

Kaia kalea, 7 - Tfno. 943 13 11 79 - 20810 ORIO

**HERRI IKASTOLA**

ABESLARI KALEA, 8  
TEL. 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

**ALUYOLA, S.L.**

*Felima Aspiaz*

LEHIOAK, ATEAK, PERSIANAK  
P.V.C., ALUMINIOA,  
POLIURETANOA SISTEMA  
PERFILTERMIKOAK

PRESUPUESTOAK KONPROMISORIK GABE

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE  
Telefanoa: 943 36 22 77



**IZARRITIK ISKURRA:** Jose Mari Olasagasti, Jose Ramon Garate, Jose Julian Olasagasti presidentea, Jose Miguel Udabe eta Juan Inazio Peña, Arraun Elkartearen direktiboak, kultur etxeko batzarrean.

## Arraun Elkartearen batzarra

■ *Aurtengo arraun tenporada ere irabaziz hasi dute*

*Otsailaren 19an Arraun Elkartearen urteko obiko batzarra izan zen herriko kultur etxean.*

BATZARRERA LAROGEI ORIOTAR agertu ziren; elkarrekin dituen bederatzirehun eta piko bazkideetarik % 10, ia. Ez dago gaizki. Sarterakoan bazkide bakoitzari eskura emandako txosten-liburuskak dotore eta txikuneko datuak azaldu zituzten batzarrean elkarteko direktiboek. Presidenteak, J.J. Olasagastik, Bergarako herriak urrian arraunlarietara emandako ongi etorri beroa aipatu zuen, esker onez, eta gogorarazi zuen Txiki zenaren azken agerpen publikoa huraxe izan zela; ondoren Gipuzkoako Foru Aldundiak Orio izendatu zuela, Olano eta beste hainbat kirolarirekin batera, 98ko kirol

talderik onena. Ondoren Jose Mari Olasagastik azpimarratu nahi izan zuen urteko 80 egunetan estropada izan zutela oriotarrek, lau egunetik behin. Gero aurreratu zen lepoa jokatzera Gipuzkoan ez dela

beste klubik, kirol guztiak sartuta, horrenbeste txapelketa ofizial irabazi duenik.

### TXOSTENEN DATUAK LABURTUTA:

- 98an trainerutan 16 bandera irabazi ziren, trainerille-

tan 2, bateletan 6 eta zortzikoan 1; denera 25.

- Trainerua aurrena edo bigarren izan zen estropada guztietan, eta bigarren lau aldiz besterik ez. Hori bai, tartean Orioko banderari.

- Iaz saritan 8.258.000 pta. irabazi zituzten, denak arraunlarien artean banatu ziren.

- Arraun olimpikoan 13 domina lortu zituzten, urrezko 8, zilarrezko 3 eta brontzezko 2. Zortzikoan azken 5 urteetan irabazi dute, segidan, Espainiako txapelketa.

- Bi arraunlari izan ziren munduko txapelketan, juniorretan Eder Etxeberria eta seniorretan Jon Salsamendi.

- Ekonomi balantzea: gastuak: 26.759.28 pta., sarrerak: 26.605.701; galera: 153.580.

- Orioko Udalaren diru laguntzak: arraunari 1.800.000, pelotari 450.000, saskibaloia-ri 732.000, sofbolari 450.000 eta atletismoari 250.000.

### DENBORALDIA HASIA DA

Traineruak, dagoeneko, irabazi du aurreneko estropada, Orioko jaitsiera, otsailaren 20an; baina justu-justu, Trintxerperen aurretik. Santoñan bigarren izan ziren igandean Astilleroren atzetik, biak segundu baten barruan. Batelek hasi dute aurtengo liga, baina aurreko seniorren ligarik ez da izango. Zuzenean txapelketak jokatu dira.

Aurtengo traineruan baja izango dira Patxi Frances —oraingoan egia omen da—, Ondarroako Urkizu eta Zumaiako Etxabe. Baina berriak hasi dira Agustin Mujika, Santi Zabaleta eta Rafa G. De Txabarri oriotarrak eta Antonio Atxega aiarra. Kontuan izanda patroik Garmendia doala eta aurreko Orion izango direla iaz Zarautzen eta Getarian ibilitakoak, aurreko kuadrilla inoiz baino oriotarragoa izango da. Jakin dugunez, egindako proba mediko-fisikoetan arraunlariak, ia denak, joan den urtean baino hobeto daude, eta denak oso gogor entrenatzen.

### HARIARI TIRAKA

## Txikiren azken saria

Iñaki Iturain

**G**ipuzkoako Foru Aldundiak aurreko, bigarren aldiz, sari bat eratu du kiroltasunean nabarmendutako deportistaren bat saritzeko. Iuz Andoni Zubizarreta atezaina izan zen aukeratua. Aurtengo ekitaldia ez da oraindik ospatu, baina jakin dugu aukeratuak bi izan direla: 18 urtez Eibarko atezaina izandako Garmendia eta Juan Mari Larrañaga Huegun, Txiki, Orioko patroia handia.

Txiki, uretan, 111 bandera irabazi zituen: 18 Zarautzen eta 93 Orion. Azken saria lehorrean irabazi du. Baina hauxe izan da, behar bada, ederrena: uretan eta lehorrean erakutsitako zintzotasuna eta gizatasunaren aitortzea eta saria.

**Hasiera bikaina**

TXURRUMUSKI astialdiko taldea oraindik martxa hartzen ari da, eta taldean dauden lagunek beldur handia zuten zer nolako harrera izango zuten. Orain arte antolatutako dituzten ekintzetan izandako arrakasta ikusita, animoz ekin diote gehiago antolatzeari. Inauterietan festa berezi bat prestatu zuten, eta kondizio bakarra moztortuta joatea izan zen. Espero zuten baino haur gehiago joan ziren.

Bideo emanaldi bat ere eman zuten eta bertan ere, nahikoa haur inguratu ziren. Martxoan larunbatero hiru bideo emanaldi emanago dituzte: surrenekoan, marrazki bizidunak eskainiko dira txiki-txikientzat; bigarrenean, pelikulak; eta hirugarrenean, pelikulak, haita ere, haina 13 urtetik gorakoentzat.

Bestalde, maiatzeko lehen asteburuan konbentziaz egingo da Txurrukan, 80 lagunentzako lekudago eta komeni da interesa dutenek lehenbailehen ematea izena.



**IDIA BERRIAK.** Norbaitek proposamunik izanez gero, buertengo bilera, bigarren 10ean izango da, 19:00etan.

**Korrika prestatzen**

MARTXOAREN 27AN GOIZEKO 7:30ak aldera pasako da Korrika Oriotik. Horregatik, batzorde bat osatu da, asteburu horretan zerbaitez prestatzekotan.

Oraingoz, programa probisional bat egin dago, nahiz eta oraindik dena zehaztuta ez egon. Hasteko, ostiralean, Korrika txikia egingo dute Eskola eta Ikastolako haur eta gazteek. Larunbat arratsaldean, berriz, txistulariak, zarpantzarrik, txalapartariak eta burubandiak ibiliko dira herrian barrena,

eta haurrentzako txotxongiloak eta jolasak ere izango dira. 20:00ak aldera, Harribil taldeak saio bat eskainiko du frontoian; eta, ondoren, kantrafari bat ere izango da. Bestalde, Udalak ere antolatuko du ekitaldiren bat: seguruen, antzerki emanaldi bat.

Aurtengo ibilbidea 8 kilometrokoa izango da. Kilometroren bat erosi nahi duten elkarre edo taldeek jo dezatela Udaleko Euslara Zerbitzura martxoaren 20a baino lehenago.

**EROSLE //**  
*para equitativo desde*

**AUTOZERBITZUA**

*entra*  
usaindegia

Telefonoa: 943 07 19 29

**AUTOAK AUKERA ONEAN**

**AIA ORIO**

Telefonoa: 943 13 04 38

**TANATORIO ZARAUZ**

EUROFUNTERARIAS TALDEA

**Hilote eta zerbitzu orokorrak**

**ERRUSTA**  
*Kriston bokadillok!!*

*Lasaltasuna eta gite onak*

**Koasta**

- Donostia eta probintziako ospitaleetan
- Aldiako zerbitzu
- Belatorio gelak
- Korriak, eskelek, tramitazioak...

Araba kalea, 35-Zarauz  
Tel/Fax: 943 13 22 52



**IRUÑEAN BILTZARRA.** Otsailaren 6an egin zen Udal Hautetsien Biltzarra, Irúneko Carlos III. zinemari.

# Udal Hautetsien Biltzarra

■ Oriko Udaleko hiru ordezkarik hartu zuten parte

**IRUÑEAN EGIN ZEN,** otsailaren 6an, Euskal Herriko Hautetsien Biltzarra, eta bertan Oriko Udaleko hiru ordezkarik hartu zuten parte: Jose Miguel Makazaga, alkatea; Mirari Arriabarrena, EAJko zinegotzia; eta Koro Sarasola, HBko zinegotzia. EAJko zinegotziek ezin izan zuten joan.

**ALKATEA: AURRENEKO PAUSOA ISAN DA**

Jose Miguel Makazaga alkateak adierazi digu oso interesgarria iruditzen zaiola emandako pausoa: *Euskal Herria osotasunean ordezkatuko zuten erakunderik ez zegoen, eta, beraz, oso interesgarria da Irúnen eman den pauso bori. Hain karreba luze bat da, maratoi bat, eta Irúneko aurreneko pausoa batzuk ez da izan. Nahiz nuke balio izatea indarrak eta borondateak biltzeko, eta ez frentisismoak biltzatzeko.*

**KORO SARASOLA: AURRERA EGITEKO OINARRIAK**

Koro Sarasolak adierazi digu garrantziakoa iruditzen zaiola han onartutako agiriak: *Frogatu dugu enkaldunak kapaz gavela elkarrekin jarraituko, eta gutxienezko batzuk adostu ditzakegula. Ez dela beharrezkoa, alegia, beti Madrilerara begira egotea. Lan arko geratzen da egiteko, jakina, baina hasi gara dagoeneko lan bori egiteko oinarriak finkatzen.*

**JOSE MIGUEL LEUNDA: BESTE HOSTO BAT ARBOLARI**

Jose Miguel Leunda zen EAren izenean Irúñerri joatekoa; baina, azkenean, ezinezkoa izan zitzaion. Nolanahi ere, esan digu itxaropentsu dagoela: *Biltzarrean Lizarrako arbolari sortu zaien beste hosto bat da; ikusiko dugu noraino bartzan iden, baina oso notizia ona da, giro politiko berri baten adierazlea.*

**BERRI LABURRAK**

**Salatxo abesbatza**

**URTEARI** hasiera emateko, abesbatzak bere lehenengo kontzertua eskainiko du Azkoitiako Santa Maria La Real elizan martxoaren 27an, arratsaldeko 17:30etan. Bertan Azkoitiko Iruargi abesbatzarekin batera kantatuko dute. Kontzertu hau, urtero ospatzen den Musika Sakrako emanaldiaren barruan dago.

Bestalde, aurreko urtean izan zuten arrakasta ikusita aurten ere, *Abesbatzen arteko Oriko Topaketa* egiteko asmoa dute apirilaren 25ean.

**Tabakoa erretzeari uzteko kanpaina**

**UDALEKO** Gizarte Zerbitzuek eta Ostargi taldeak antolatuta, ikastaro bat izango da tabakoa erretzeari utzi nahi dioten pertsonentzat. Ikastaro hau Gipuzkoako Mimbiziaren aurkako elkartearen eskutik antolatuko da. Saio terapeutikoak martxoaren erditik aurrera emango dira kultur etxean, arratsaldetan.

Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak, jo dezala, goizez Udaleko Gizarte Zerbitzuetara. Izena emateko azken eguna martxoaren 8a izango da.

**PATXI OLIDEN**

Hemengo horaga:  
Etxeko produktua: tipaki, odolki, txakarra, txorito, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

**GOIZEKO**

\*KAFETEGIA  
\*IZOZKIAK  
\*CROISSANDEGIA

Pasteleriko enkarguak hartzen dira

Aita Lertxundi, 33  
Tfnua: 943.83.28.55

## Hagatik musika taldea Salatxon

MARTXOAREN 2an hasi eta hilaren buelaera arte, argazki erakusketa izango da Salatxo tabernan. Argazkilaria Bergarako Andres Indurain da, eta paisajeak izango dira Salatxon erakutsiko dituenak.

Bestalde, Hagatik izeneko musika taldea izango dugu San Jose egunean gaueko 23:00etan. Talde berri honen aurreneko emanaldia izango da. Bertan oriotar batek jotzen du: Jose Ramon San Sebastianek.

## Jesus Mari Peronaren ontzia erakusgai

MARTXOAREN 14a arte izango duzue Peronaren itsasontzia erakusgai Donostiako Aquariumean.

Aipatzekoa da egin duen lan ikusgarri horregatik, Bartzelonan ospatutako Espainiako itsas modelismoko txapelketa irabazi zuela.



DANTZA SAIO BIKAINA. Maile handiko ikuskerazoa eskaini zuten Musika Eskolako dantzariak frontoian.

## Musika eskolako emanaldia

FRONTOIA TXIKI GERATU zen Musika Eskolako dantzarien saioa ikusteko, eta gustura baino gusturago atera ziren bertara joandakoak.

Ehundik gora artista aritu ziren dantzan emanaldi bizi, alai eta ederrean otsailaren 27an: lau urtekoekin hasi eta 18 urte bitarteko neska-mutilak bildu ziren guztion gozamenerako.

Dantzarako doinu tradizionalak gain, beselako kantu herrikoiak ere entzun ziren dantzarien adinara primeran egokitutako

koreografiak erakutsiz. Eta hori izan zen sekretua, ikasleek dantzarekin gozaten ari ziren eta hori igerrri egiten da, gogotsu eta alai egin baitzuten dantza.

Eli Alberdi irakasleak badu harro sentitzeko arrazoirik: ikasleak dantzan ikastez gain, dantza maitatzen eta sentitzen ikasten dutelako, irakasleak lana ondo egiten ari diren seinale.

Horrelakoetan gertatzen denek, publikoa oso esker onekoa izan zen, eta guraso jendeak gogoz egin zien txalo hurrei.

ARRALDE  
SAGARDOATEGIA JAITZENA

ARRALDE  
ERROZAEZENA  
BASARRIA

Ungay, Puzos eta 1. bar.  
7800 9110000 00  
Arañak

URANGA  
*Buntzardegia*

Opari, menaje, hermanientak...

Telefax: 943 837 36 Eusko Cadari 3

REGELATO

Etxeko helatuak eta kruasanak

San Nikolas, 17 Tfnoa: 943 13 17 47

RAMIRO

eska ezazu zure txanda

Telefexa:  
943 83 10 48



**PARTEHARTZE ZARALA.** Presoak Euskal Herriratzeko eskatu zuten bainbat taldetako ordezkariak.

## Presoen aldeko batzordea sortu da

**PRESOAK EUSKAL HERRIRATZEKO** batzordea sortu da Orion. Bertan, HB, EA eta EAJ partidu politikoek; LAB, sindikatuak; Amnistiaren Aldeko Batzordeak, XUGAK eta Intsumiso Taldeak hartzen dute parte.

Horiek, bizpahiru bilera egin ondoren, kontzentrazio bat egitea erabaki zuten. Kontzentrazioa otsailaren 20an izan zen herriko plazan, 13:00etan. Batzorde berri honek, ekintza gehiago ere antolatuko ditu. Azken

bileran, manifestaldia egitea ere proposatu zen. Bilerak irekiak dira, eta norbaitek parte hartu nahi badu, azaldu besterik ez du.

Bestalde, otsailaren 11n Joseba Alvarez, gartzelan dagoen HBren Mahai Nazionalako kidea, oriotar batekin ezkontuta dagoena, herrian izan zen gaixorik dagoen senitartekoa bisitatzeko. Joan den urteko abuztuan eskatu zuten here alokatuak bisita egiteko baimena, eta, azkenean, aurrean eman diote.

## HANDIK ETA HEMENDIK

### LUDO DOCX

*Apaiz flandriarra*

"Jon Sarasuaren familia niretzat eredu da. Aitamek askatasun eta errespetu osoz hezi dituzte seme-alabak. Jon pertsona sakona da, eta gurasoak ditu iturri nagusia"

ARGIA 99/2/7



### JESUS MARI

**GARMENDIA**

*Patroia*

"Badakit begi asko izango ditudala niri begira."

"Nik ikusten dut Orion jendea ilusio handiz ari dela lanean eta entrenatzen, eta ilusioa dagoenean edozer lor daiteke."

"Agiar, ilusio handiagoa egingo zidan Oriokoak semearen bila etorri izan bailira."

EGUNKARIA 99/2/14

### MAKAZAGA

**Igeltseritza**

- Igeltseritza orokorra, jenetarik egiten dugu

- Restoratuak eskatu ko promozionak dituzte

Lan baikuna eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00

**LOBETXU JAIETZEA**

Eusko Gudari, 18 Tf: 943 83 00 07

**Shock!**

*Estetikoa*

**Pelukeria Estetika**

Tfnoa: 943 13 09 01

## SARASUA ERRETEGIA

**Plater bereziak:**

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoak: 943 83 00 05  
943 13 25 32

**Nestor Gozategi**



*Iturjintza*

**Tel: 607-224100**

943 83 12 51

# Jose Ramon SAN SEBASTIAN



## 'Salatxon kantatuko dugu aurreneko aldiz'

*Joxerrak 34 urte ditu, eta, Orion jaio zen arren, orain Lasarten bizi da. Bertan okindegi baten jabe da, arrebarekin batera, eta, lan borretaz gain, musikazale amorratua da. Gaur egun Hagatik izeneko musika taldeko partaide da, eta diskoa kaleratzekoak dira.*

**Noiz hasi zinen musikarekin harremanak izaten?**

9-10 urte nituenean, Patxi Danbolinek musika irakasten zuen herrian, eta ni bere solfeo klasetara joaten hasi nintzen. Askok gustatzen zitzaizdan musika.

**Zein izan dira musikaren munduan eman dituzun urratsak?**

Esan bezala, Patxi Danbolinek hasi nintzen, eta hare-

kin nabilela, koruan kantatzen nuen. Zenbait txapelketa irabazi genituen. Bestalde, nire arrebak kitarra jotzen zuen, eta noizbelnka, niri ere asko gustatzen baitzitzaidan, bere kitarra hartu eta hura jotzen aritzen nintzen; gero, Patxiarekin ere kitarra ikasi nuen.

Txarangan ere aritu nintzen eta han bajua jotzen nuen. Gero, istilu batzuk egon ziren eta ni, batzuen alde jartzeagatik, bota egin ninduten. Horri esker, kanpoan hasi nintzen lanean. Lasartera joan nintzen 23 urte nituenean, eta bertan Kazkabarra taldean parte hartu nuen. Ondoren, Juan Mari Beltranek Txanbelan jotzeko aukera eman zidan. Euskal kantu zaharrak herreskura-tzea izan zen urte haietan egin nuena. Egun batean, Erramun Martikorenak entzun ninduen, eta berarekin jira moduko bat egiteko eskaini zidan; baita egin ere. Holandan, Alemanian, Parisen, eta Euskal Herrian zehar ibili ginen. Hego Ameriketan

ere izana naitz.

Billabonako Martinek ere ibili nintzen erromeriatan... baina goizean lanera joan behar izaten nuen eta oso nekaturia ibiltzen nintzen; beraz, utzi egin nuen.

**Orain talde batean parte hartzen duzu, ezta?**

Bai, ezkontzatan-eta ibiltzen den talde batek proposatu zidan berekin jotzeko. Lasartekoak dira taldeko beste hiru lagun hauek: Jesus Garcia pianista, Lasarteko kultur etxeko irakaslea; Julio Garcia tronpetista, Hernaniko bandan solista dena eta Isaac Oiarzabal bateria jolea. Lucrecia abeslariarekin musika latinoak ikasten aritu dena. Orain arte, Martin Berasategi jotetxean jotzen genuen ezteietan... Piskanaka-piskanaka gure kantak sortzen hasi ginen eta horregatik erabaki genuen bestelako emanaldiak ere egitea, gure musika ezagutarazi eta jendeartean zer nolako harretra duen ikusteko.

Jendearen inpresioa ona bada, konpaktoa ateratzeko asmoa ere badugu.

**Ze estilotako musika joko duzue?**

Batez ere, pop eta latinoak jotzen dugu, baina badira, baita ere, reaggea, baladaren bat... Ezteietan jotzen ibili ondoren, jendearen gustuak piska bat ezagutzen ditugu, eta guk uste dugu, erritmo hauek gustokoak direla. Gure musikak indarra izango du, baina ez du belarriko minik egiten. Adin guztietarako egina da.

**Zein dira momentu honetan zuen taldeak dituen helburuak?**

Momentuz, jende artean ezagunak izatea nahi dugu; horregatik, hasiera batean, tabernetan jo behar dugu. Dagoeneko bizpahiru kontzertu ematekoak gara, eta horietako bat Salatxo tabernan izango da hilaren 19an. Baina gure helburia edo nahia plazetan jotzen bukatzea da.



## GUSTURA ELURRIAN.

Argazkian, Pont de Espagnan eskiatzen ibili ziren oriotarrek ikur dirazkegn.

## MENDIA

## Agenda bete-betea dauka Talai Mendik

AURREKO KARKARAN AZALDU genuen bezala, Talai Mendi elkarteak 50 urte beteko ditu aurten; eta, horregatik, ekintza ugari antolatu ditu urte osorako. Pont de Espagnan eskiatzera joan ziren otsailaren 6an, 25 lagun inguru bildu ziren, eta oso ondo pasa zutela esan digute. Hala eta guztiz ere, susto txiki bat izan zuten iritsi bezain laister: eskiatzaileetako bat hankaz gora joan zen, erori eta min handia hartu zuen ipurdian.

Bestalde, hil honetan ere badituzte makina

bat gauza egiteko. Martxoaren 6-7an Artikutzara egingo dute irteera. Dagoeneko kupoa beteta dago eta 30 pertsona joango dira. 9an Inurategi anaiak datoz Oriora, diapositibak erakustera. 14an, berriz, eskualdeko ibilaldi neurtua egingo dute Zarautzen. 27an, Harribil dantza taldearen saioa izango da frontoian.

Azkenik, apirilaren 10-11n orientazio ikastaro praktiko-teorikoa ere izango da. Parte hartu nahi baduzue, oraindik garaiz zabiltzate izena emateko.

## PLAIEROAK

## Azken txanpara bidean

ORIOKO bi talde ari dira aurten plaieroetan: batetik, Pukas Aia-Oriko eta bestetik, Kepa Harategia. Aiako Kinoa taldeak ere parte hartu du. Bi talde oriotarrak bigarren ligaxkarako klasifikatu ziren, eta orain bertan jokatzeko ari dira. Orain arte Kepa dabil ondoen, jokatu dituen hiru partiduetatik, bi irabazi eta bat berdindu baititu. Pukas Aia-Oriok, berriz, bat irabazi, bestea galdu eta bestea berdindu egin ditu; beraz, hurrengo biak derrigor irabazi beharko ditu finalerdietara iristeko. Bi multzotan banatuta daude taldeak, eta Orioko biak multzo banatan daude. Bakoitzeko lehenak eta bigarrenak finalerdiak jokaruko dituzte, eta besteak kalera joango dira. Aiarrak koparako klasifikatu ziren, eta lehenengo kanporaketa irabazi bazuten ere, bigarrena, penaltietara ailegatu ondoren, galdu egin zuten. Horrela, txapelketatik kanpo geratu dira.

**AHOIKULARITZA**  
Fisioterapia, laboratu, kostablen

**Eugenio Garmendia**

**ASEGURU ARTEKARIA**

IBAI ONDO, 1  
Tel.: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**BORDAIXO**

• Bokadilloak  
• Marisko ratio bereziak

Tel.: 943 15 30 14

**AUTO-LAN**

\*Auto konponketak  
\*Olio eta gurpil aldaketak

Peluteri Iñaki,  
C/ 711 33 09 31

**URAITZ**  
LURRINDEGIA

**KIROMASAIA**

URAITZ

ANBIA, TENA, MASAIA

**OLIDEN HARATEGIA**

**Eusko Gudari** 2  
Tfnoa: 943 83 10 86

**LIZASO**

ERLOJU eta  
BITXI DENDA

ORIO, KAIA 5 TFNOA: 83 10 90  
ZARAUTZ, IPAR 6 TFNOA: 13 17 43

**ALLIANZ-RAZ**  
asegurua

Allianz IKS

**MARIGRE ZALDUA**  
Aseguru-eragilea

Ibai Ondo, 10 behe-oina  
Tel.: 943 13 47 60

**GURE TXOKO**

**TABERNA**

ARIZAGA KAIA

## ARRAUNA

### Bateletako liga hasi da

OTSAILAREN 27 eta 28an hasi zen bateletako liga Getarian. Infantilak 2. postuan geratu ziren, kadeteak 4., 5. eta 6. postuetan, jubenilak 2. postuan. Aurten, jubeniletan, nesken batela ere ateratu dute, eta hauek 4. geratu ziren.

Bestalde, bada beste aldaketa bat ere, lehen Jose Luis Miralles aritzen zen gazteak entrenatzen eta, aurten, Igor Lertxundi, Pepon eta Iñaki Bernedo dabilza.

### Oriotarrak mundialean

JABIER Puertas eta Andoni Elizalde arraunlariak gogor entrenatzen ari dira: baterik, ekaina bukaerari, Sevillan jokatuko den Espainiako txapelketarako; bestetik, eta batez ere, irailan, Sevillan bertan jokatuko den Munduko txapelketarako. Bi arraunlariak, beterano kategoriako lemaizain gabeko bikoan jardungo dira. Aipatu baita ere, Orioko Klubean seniörrek egiten duten entrenamendua egiten ari direla, medikuaren laguntza eta guzti.



**MAILA OMIAN.** Joakin Aranburuaren lau urteko bilerak jarri du Orioko saski baloia.

## SASKI BALOIA

# Neskak lehen postuan ditugu

ASPALDIKO URTETAN EGIN duen bezala, aurten ere, Joakin Aranburu da saskibaloiko nesken eta mutilen taldeen entrenatzailea.

Nesken taldean, 10 jokalaridau, eta Txapelketa Probantzialean jokatzen dute. Oraingoz, lehenengo postuan daude, eta hiru partidubesterik ez zaizkie geratzen denboraldia bukatzeko. *Esperantza handia dago 2. mailako Txapelketa autonomikora igotzeko, esan digu Joakinek.*

Bestalde, mutilen taldea Liga autonomikoko lehenengo mailan dago, eta 12 jokalaridau taldean. Bi multzotan banatzen da liga hau eta, oriotarrak, beren multzoko 5. postuan geratu dira. Orain, Espainiako txapelketako 2. mailara igotzeko ligaska jokatzen ari dira. Joakinen iritziz, ez dute mailaz igotzeko esperantza handirik; hala ere, boke izango dela dio, igotz gero, medio faltan izango baitira, batez ere, alde baterik bestera jouteko behar adina diru ez dutelako.

**Iturain**  
estankoa  
aritzaga Plaza 25 44 75

*Lizaso*  
*Uztuziak*  
Eusko Gudari, 16. Tfnoa: 943 83 05 86  
1506 Lertxundi, 6. Tfnoa: 943 73 33 01

**AZKUE**  
Otsas-gaiak  
Eusko Gudari, 12  
7 943 83 25 55

**GABON**  
Flater konbinatuak,  
pintxoak eta txokolatadak  
Tfnoa: 943 83 06 09

**Inaxio Andres**  
ORIZU, S.L.  
Pintura orokorrean eta enpapelatze lanak egiten ditugu  
Iurbide 12. 4.C  
943 83 20 69  
909 40 58 98

**URBAZTER**  
ASEGURUAK  
AHOLKULARITZA  
San Vitorio, 3  
943 83 11 15

**TXOMIN**  
arraindegia  
Tfnoa: 943 83 27 47

**Ibai-ondo**  
Supermerkatua  
Ibai-ondo  
Tfnoa: 943 83 47 50

# Martxoaren 8a aitzakia hartuz



KORO SARASOLA\*  
EMAKUME TALDEKOA

'Tratu txarrak direla eta, hainbat epaileren bertsiotan, badirudi emakumea bera dela erruduna eta ez biktima.'

**E**makumeen eguna datorrela eta, aukera aprobetxatuz, hausnarketa txiki bat egitera gatoz.

Urte asko dira emakumearen borroka honetan daramatzagunak, berdintasuna aldarrikatuz: aukera berdinak izatea denok, hau da: gizon edo emakume izateagatik diskriminatua ez izatea.

Gaur egun, zoritxarrez, egoera ez da guk nahit adina aldatu.

Alde batetik, legedian adibidez, teoriarik berdintasuna kontentatzen da, baina praktikan eta egunerokotasunean, hutsune handiak daukete oraindik.

Bestalde, egia da hainbat arlotan gehitu egin ditugula gizartearen aktiboki parte hartze-ko aukerak.

Herrigintzan edo politikan, adibidez, emakumearen presentzia areagotu dela nabaritzen da. Lan munduan, berriz, oraindik diskriminazioa sufritzen dugu: haurdunaldia dela eta, esate baterako, trabak sortzen dira; eta, oraindik ere, askotan entzun behar izaten ditugu honelako esaldiak: *lanpasa baterako emakumeak prestakuntza berdina izan arren, gizonek baino gehiago demostratu behar dugu.*

**AZKENALDI HONETAN, BAITA** ere, tratu txarrak sufritzen dituzten emakumeen kasuak geroz eta gogorrago eta larriago agertzen zaizkigu. Horren aurrean, nahikoa adierazgarria da epaileren jokabidea. Salaketak ez du behar den indarra izaten ondorio larriak ez dagoen bitartean. Hainbat kasutan, epaileren bertsiotan, badirudi emakumea bera izan dela erruduna eta ez biktima.

Gaixotasun larri berriak ere azaldu dira: anorexia, bulimia... Pertsona gisa hezitu beharrean, autoestima eta beste halore batzuk in-

diartu beharrean, azaleko eta itxurazko haloreak sartzen saiatzen dira, modaz eta publizitateaz baliatuz.

Zer nolako gizartea bultzatzen ari gara?

Beldurgarria da benetan, zorigaitzoko gaitz hauek uzten duten hondamendia.

Familiako ardura guztia ere (umeak, gurasoak, gaixoak zaintzea...) emakumeen gain uzten da, eta geroz eta lotuago gaude. Familia barruan aztertu beharko litzateke gai hau, ahal den neurrian, gizonetako ere ardura berdina hartzeko.

Eta azkenik, egunerokoa, ikusten dugu zenbat istilu sortzen zaizkigun emakumeen presentzia edo parte hartzea eskatzen dugunean.

**GAUR EGUN SINESTEZINA** dirudi, baina urrutira joan gabe, hor ditugu bi adierazgarri: bat, Alardea: ze beldur ote diote batzuek emakumeak herriko festetan parte hartzeari? Bestea, berriz, Orion bertan sortu zaiguna, soziedadeko bazkidea izatea dela eta.


Eztabaida sortzea bera ondo dago; gutxienez gatazka kaleratu egiten da. Bazkide batek planteatzen badu bere ordezkoa ematea edo alaba izatea, ez ote du horretarako eskubiderik? Zein beldur dute batzuek emakumeak bazkide izateko? Ez al da lotsagarria gaur egun arazoa sortzea gai honen inguruan?

XXI. mendearen atarian, berdintasunaren bidean, aukera polita dago hor, aurrera egiteko. Atzerapauso ikaragarria litzateke, orain arteko ohiturari eutsiz, gaur egun sortzen diren beharrei erantzun aurrerakoirik ez ematea.

\* Artikulu honi Maribel Bruñok eta Maria Pilar Arruñek ere izanpetzen dute.

**KARKARA**  
EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA  
**KARKARA**  
943 83 15 27 · ALDIZKARIAN

**LABORARGI, S.L.**  
ASFOKULARITZA (Fiskala, Laborala, Kontablea,  
Finantzaria, Auzozuztenakoa)  
**MAPFRE ASEGURUAK**  
EUSKO GUDARI 52, 1º E - TEL.: 943 14 47 ZERBIZU: 943 85 52 98 - 20811 ORTIO



# Zubiri-zubiri

Erreportaje honen izenburua umeen jolas bateko doinuetan ageri bada ere, zubi kontuak ez dira jolasa oriotarrantzat. Obrek sortzen dituzten eragozpenak jasaten ari gara aspalditik: Aitzondoko zubikoak, moilakoak, errepide nazionalako zubikoak... Su-eten garaian bizi bagara ere, semaforoek, zaratak eta auto-ilada luzeek ez dute etenik gurean. Gainera, zubiko obrek luze iraungo dute: zubia maiatzaren 5ean ireki nahi bazuten ere, behin-behineko zubia jartzeko lanetan bi hilabete inguru atzeratu dira. Beraz, pazientzia.

JAKES GOIKOETXEA

Zubiko obrak sormutako eragozpenak gutxi balira, badi-rudi obrak luzatu egingo direla. Obrak egiten ari diren *Moyua* eta *Dragados y Construcciones* enpresek konprometuzua hartu zuten zubi berria maiatzaren 5ean irekitzeko eta obra guztiak ekainaren 5ean bukatzeko (hilabete behar baita behin-behineko zubia kentzeko). Hala ere, behin-behineko zubia egiten bi hilabete inguru atzeratu dira, Jose Manuel Erauso zubiko obraren arduradunak adierazi digunez, zimentazioak aurkitzeko zailtasunagatik eta eguraldi txarragatik: *Bagenekien erriaon barkaitza zegoela, baina kostatu egin zitzaizgun barkaitza atxikitzea. Gainera, garai hartan erri asku egin zuten eta erriak ekarritako zikinkeriek estali egin zituzten gure dragatze eta garbiketara lanak. Orain beste lanak azkarri eta atzeratutako denbora aurreratu nahi dugu.*

Atzeratutako denborarik aurreratu ezean eta bestelako atzerapenik izan gabe, zubi berria uztailaren hasiera inguruan irekiko litzateke, uda hasieran. Oso garrantzitsua da zubia uda hasierarako bukatzea, bestela, eguraldi oneko egunetako ohiko trafiko arazoak asko handituko lirateke.

Gaur egun zimentazio lanak egiten ari dira zubi zaharrean, zubiaren oinarrietan mikropiloteak sartu eta zubiaren oinarriak indartzen. Izan ere, zubi berria zaharra baino astunagoa izango da. Zimentazio lanetan arazoren bat izan dute, zubiaren oinarri bat pizatu egin baitzen eta indartu egin behar izan dute.

#### ARKUPEKOEN BEREN KEZKAK AZALDU DITUZTE UDALAN

Zubiko obrak eragozpen dezente sortzen dituzte. Jose Manuel Erauso obraren arduradunaren iritziz, *aintzat hartu behar da oso obra garrantzitsua dela eta horrek, nahitaez, eragozpenak sortu behar dituela. Egoera abalik eta bobekien jasateen saiatu behar dugu.*



**TXAPAK NIJEAN** Behin-behineko zubiko metalazko txapak eskatu egiten dira eta zarata handia sortzen dute.

Arazo horiek azaldu eta konpontzeko asmoz, Arkupe elkarteke ordezkariak bilera bat egin zuten Udaleko ordezkariekin, eta, Arkupek eskatuta, Antton Jaime Herri-lan eta Garraio diputatua Oriora etortzekoa da obraren

berri emateko eta herritarren kezkei erantzuteko.

Arkupek Udaleko ordezkariari bileran azaldu zuten kezketako bat obrari buruzko informazio falta eta alkatearen arreta falta izan zen. Udalarari eskatu zioten komunikabideen bi-

tartez herritarrei eta zubiaren erabiltzaileei informazio gehiago ematea.

#### SEINALIZAZIO TXARRA ETA AUTO-ILADAK

Arkupek obraren seinalizazio txarra ere salatu zuten, bai herri barruan, bai herritik kanpo, herrira sartzeko eta herritik ateratzeko. Arkupeko arduradunek uste dute herrira sartzeko eta herritik ateratzeko Txankako bidea erabil daitekeela, horrela auto-iladak arintzeko. Arkupekoen iritziz herriko seinalizazioa hobetu egin behar da, *kantutik etortzen zaitzizkin bezueak etengabe herriko kaleetan gald ez daitezen*. Seinalizazioaz gain, aintzat hartu behar da Txankako bidearen egoera, errepidea oso estua baita.

Behin-behineko zubiak karriel bakarra du eta, ondorioz, auto-ilada luzeak sortzen dira alde batean zein bestean. Arkupek Ertzaintzari eskatu zion trafiko gehieneko orduetan berek antolatzeko behin-behineko zubiko trafikoak, baina Ertzaintzak erantzun zion oraingoz ezin dutela, ordute-

## Zubia maiatzaren 5ean ireki nahi bazuten ere, obrak bi hilabete atzeratu dira



**AUTOBUS GELTOKIA** Autobus geltokiak, bai Donostiara, bai Zarautza joateko, gaillegoaren alkileraren parean daude.

giaren eta ertzain kopuruaren arazoengatik. Hala ere, Ertzaintzako ordezkariak eta Diputaziokoak laster bilduko dira gai aztertzeko.

Auto-ilada luzeen ondorioz, auto gehien ibiltzen den orduetan (lanera joan eta etortzeko orduetan, batez ere) erreza da iladan ordu laurden inguru itxaron behar izatea. Gainera, Zarautzik bueltan ilada luzeak sortzen direnean (Aitzondo ingururaino) semaforoa berdean jarri arren, ez du ematen denborarik iladako auto guztiak pasatzeko eta beste itxaronaldi bat egin behar izaten da.

Zubi zaharra autoentzat itxita eta oinezkoentzat irekita egon zen garaian Zarautz aldean lan egiten zuten oriotar batzuk autoa Arin y Enbileko aparkalekuan utzi eta oinez etortzen ziren herrira bazkaltzera, oinez autoan baino azkarrago iristen baitziren etxera. Hala ere, gero Arin y Enbilek beren parkina partikularra dela adierazten duen kartel handia jarri zuen.

Auto iladak gutxi balira, semaforoen ondorioz autoak multzoka ateratzen dira elkarrekin, karabanas, elkar aurreratzeko saiokoak eta, beraz, istripu arriskua handituz.

Egoera ikusita, Arkupek autopistako loturaren proiektua aurreratzea eskatu dio Udalari. Udalak autopistaren lotura lanak eta Txankako bariantearen lanak aurreratzeko diru aurrerapenaren finantziuzioa plantestu zion Diputazioari, baina Diputazioak atzera bota zuen Udalaren proposamena.

#### ZARATA

Zubiko obrek sortzen duten beste arazo bat zaratarena da. Alde baterik, behin-behineko metalezko txapek zarata handia ateratzen dute trafikoa pasatzean. Bestetik, bertako bizilagun batzuek adierazi digutenez, egun batzuetan zubiko obrek egun osoa iraun dute, hau da, gauz ere lanean aritu dira.

## Arkupek, besteak beste, zubiko obrei buruzko informazio falta salatzen du

Jose Manuel Erausoren esanetan, zaratari dagokionean, *aintzat hartu behar da katalogoko zubi bat dela, ez dela zubi berria, eta, torloju batzuk alkatu egiten direnez, txapak mugitu egiten dira. Zarata arintzeko irtenbideei dagokienez, Erausok dio mantenimendu lanak arazotuko dituztela.*

#### OINEZKOEN PASABIDEA

Behin-behineko zubian oinezkoen pasabideko txapak ere dezente mugitzen dira (gora-behera handiak egiten dituzte) eta ez dute segurtasun sentazio handirik eskaintzen. Erausok ez du arazo horren berri. *Egia esan, ni pasa nartz bertatik eta iruditzen zait oso ondo dagoela. Nire impresioa da oinezkoen pasabidea oso baldintza onetan dagoela, bai segurtasunari dagokionean, baita errotasunaren ere. Hala ere, lan kideen artean komentatuko diela agindu digu.*

Larrialdi egoeretan ere oztopo da behin-behineko zu-

bia, denbora galtzea sortzen baitu. Duela gutxi gertatutako kasa batean, ambulantzia, larri zegoen gaixoa barruan zuela, semaforoa berdean jarri zain zegoen zubi gurutzatu, Zarautzen autopistan sartu eta gaixoa Donostiara eramateko. Ez zegoen udaltzainik edo ertzainik beste aldeko trafikoa moztu eta ambulantiari pasatzen uzteko eta beste aldetik zetozen gidariek ez zuten gizalegez jokatu, ez baitzioten pasatzen utzi. Denborarik ez galtzeko, ambulantiak buelta eman zuen eta N-634 errepedetik joan zen Donostiara.

#### ZUBI BERRIA

Zubi berria zaharraren oinarrien gainean egingo da eta, beraz, ez da zaharra botako. Zubi berria guttiz hormigoizkoa izango da eta ez du metalezko egiturarik izango. Altuerari dagokionez, ibaiarekiko ahalik eta altuera gehien irabazten saiatzen ari dira; alde batetik, zubiaren altuera

igoz (30 zentimetro), eta, bestetik, zubi berriak metalezko egiturarik izango ez duelako. Erausok zehaztu digunez, *zubiari forma kurba emango diogu eta metro bat inguru irabaziko dugu ibaiaren eta zubiaren artean.*

Zubiaren eta Ibai-Ondo kaleko zubi azpiko pasagunearen altuera 30 zentimetro igoko dira. Lan horien aurrekontua 30 milioi pezetakoa da eta horietatik Udalak ordaindu behar ditu 25 milioi pezeta, Diputazioaren esanetan zubiko obra konponketa bat baita, ez zubi berri bat egitea. Ondorioz, Udalak ezin du dirurik jaso Diputazioak gerta daitezkeen ustekabeentzat duen poltsatik.

Ohraren arduradunak zenbait aldaketa aztertzen ari dira zubi berriaren proiektuan. Hasiara batean zubi 12 metro zabalekoa egin nahi zuten, baina 10,5 metroa gutsitzea aztertzen ari dira, zimentazioan izan dituzten arazoak direla-eta, oinarriek jasan behar duten pisua gutsitzeko asmoz. Horrela, zubi berriak 3,25 metroko bi karril eta metro bateko bi espaloi izango lituzke (zubi zaharrak hiru metroko bi karril eta 80 zentimetroko bi espaloi ditu).

#### AUTO-ILADAK

Semaforoen ondorioz, auto-ilada luzeak sortzen dira tren geltokirik aurrera, jendea lanean joan eta laurtek bueltatzen den orduetan batez ere.





**SUEZKO KANALA.** Agustín bi semeekin Suezko kanala zeharkatzen. Lezko nderan emaitzak eta bi semeek oporrak itsasontzian pasa zituzten.

AGUSTIN LIZASO

## 'Itsasoko nire lana beste edozein bezain gogorra da'

*Agustinek Bilbon Nautika ikasi eta lanean hasi zenez geroztik hogeit hamar urte daramatza itsasoan, ia bere bizitza erdia, 42 urte ditu eta. Hogeit hamar urte hauetan itsaso guztietan barrena ibili da, eta munduari buelta osoa emateko aukera ere izan du.*

ANA ITURAIN

**Noiz eta non hasi zinen lan horretan?**

Bilbon Nautika ikasi nuen, eta 79an, artean ikasle nintzela, bapora batean hasi nintzen kadete. Nire lehenengo bidaiari hartan Orioko batekin izan nintzen hosi hilabetez, Jose Ramon Esnal, *Baserrirrekin*. Bera makinista zegoen bapora hartan eta elkarrekin ibili ginen. Oso gogorapen onak ditut ordukoak. Argentinan, New Orleansen eta Kanadan izan ginen. Argentinan, Rosario hirian, Esnal ostaturako Eugeniren anaiarekin topo egin genuen. Gero 81ean ofizial izendatu ninduten eta 90 ezkerko kapitaina naiz, titulazioz, baina lanean lehenengo ofiziala.

**Zer nolako itsasontzitan ibiltzen zara?**

Orain petrolero batean na-

bil, MOC konpainia estatu batuetarrekoko itsasontzi batean, eta petrolioa eta alioi-entzako gasolina eramaten dugu. Aurretik beste bederati urte Exxon enpresan egin nituen.

**Askotan entzuten da horrelako itsasontzi batek istripua izan eta hondamen ekologiko izugarria eragin duela. Arrisku eta ardura handiko lana duzu. ezta?**

Niri ez zait tokatu inoiz egoeralarri batean egotea, baina egia da guk garrantzi handia ematen diogula segurtasunari. Gero eta handiagoa. Garraiatzen dugun produktua oso arriskutsua da, uretara eroriz gero hondamen ekologiko handia ekar baitetzake, eta

konpaniarentzat diru galera handia da; beraz, kontu handiz ibiltzen gara. Lehen ez zitzaien hainbesteko garrantziarik ematen, baina azken urteotan, zorionez, gauzak aldatu egin dira, kontrol handia egoten da, dena modurik egokienean egiteko.

**Zein izaten da zure lana?**

Nire lana, batez ere, mantentimendua, pertsonala eta karga eta deskarga kontrolatzea da. Ni ez naiz puentean egoten.

**Zenbat denbora pasatzen duzu etxetik kanpo urtean?**

Bost hilabete lan eta bi opor izaten ditut.

**Hainbeste denbora etxetik kanpo egon beharra ez al zaizu gogorra egiten?**

Beste edozein lan bezain gogorra iruditzen zait. Kontuan izan behar da nik lan honetarako ikasi nuela, eta gustakoa dudala. Batzuetan, Gabonetan edo hamaingo jailetan asko gogoratzen naiz familiarekin eta, baina itsasoan ere oso momentu onak pasatzen ditugu.

**Nolako da itsasontzian dabilen jendearen arteko harremana, arazorik izaten al da?**

Oso harreman polita daukagu, ez dugu inolako arazorik izaten.

**Baina toki itxi batean hainbeste gizon egotea ez al da itogarri samarra?**

Gure itsasontzietan ez da jende asko egoten, guztira 32-34 lagun jarduten gara lanean, eta tokia itxia bada ere, oso handia da. Ni beti bapora handitan ibili izan naiz. Oraingoa 230 metro luze da eta 400 metrokoetan ere ibilia naiz. Espazioa ez da problema izaten, denok gerontzako gela daukagu, komuna, dutxa eta guzti. Igerilekua, liburategia, pin-pona, taberna, jangela eta ibar ere badauzkagu. Ho-

tela dirudi.

### **Nongoa da lanean dabilen jende gehiena?**

Gehienak, 27 bat, filipinarrak dira. Guretzat kaxkar samarra den soldata haientzat handia da, orduan itsasontzian hamar bat urte egin eta gero, itsasoa utzi eta herrira itzultzen dira ezkondu eta han bizitzera. Normalean oso gazteak izaten dira, eta oso jatorrak. Oso fededunak dira, eta gureak bezalako ohitura asko dituzte, Filipinas Espainiaren kolonia izan baitzen urte askotan. Askok ahizen euskaldunak dituzte.

### **Lehorrean lan egiteko aukera izango bazenu hartuko al zenuke?**

Hartzekotan itsasoarekin zerikusia duena hartuko nuke, baina bestelakorik ez. Denborarekin kai bateko praktikoa izatea gustatuko litzaidake. Horretarako esperientzia handiagoa behar da, eta oposaketak aprobatu.

### **Lehen, Hornoseko Lurmuturra pasatzea arriskutsua izaten zen, hori egiten zuten marinelek belarririkoa jartzen zuten, zuk pasa al duzu?**

Bai, handik pasa naiz, baina nik pasa nuenean bare-bare zegoen. Magallanes itsasartetik ere pasa naiz eta ikaragarria da, ez baitago ezer, hotz handia bakarrik. Eta izenak ere halakoak dira. Río de la Muerte, de la Desolación...

### **Munduari buelta osoa eman diozu, ezta?**

Bai, behin Portugaletik abiatu eta New Orleansera joan ginen, handik Txinara, gero Australiara eta handik Irlandara, horrela munduari buelta emanaz.

### **Zein dira ikusi dituzun tokirik politenak?**

Baporearekin sartzeko politenak Sidney, Santander eta New York dira.

## **'Gurea bezalako baporeetan tokia ez da arazoa izaten. Denok, gerontzako gela daukagu'**

Papua iriak-eta ere, oso politik omen dira, baina handik pasa besterik ez naiz egin. Haiek politikak izango dira belero batean joateko.

Ikusgarriak dira, baita ere, Kanada eta Estatu Batuen artean dauden Laku Handiak. Laku ikaragarriak dira, bata bestearen ondoan, jarraian, eta altura desberdinetan. Konpuerta batzuen bitartez batetik bestera joan zaitezke. Orduan, konparazio baterako, zu Orioko erriean zaude eta goiko gainean itsasontzi ikaragarri bat ikusten ari zara. Han bertan indioen erreserbak daude eta haien bizimodua ikustea daukazu. Egoera penagarrian bizi dira, gehienak alkoholizatuta daude.

Hori Kanadan eta Estatu Batuetan bakarrik ez. Venezuelan (San Juan ibaian) eta Australian ere ikusi ditut bertako indio eta aborigenak eta haien egoera tamalgarria da, batez ere Australiakoena. Pobreak, alkoholikok, deskul-

turalizatuak...

### **Toki politen gainean hitz egin dugu, eta gogorrena edo itsusiena zein da?**

Nire ustez gogorrena Ozeano Barean Estatu Batuetatik Japonerainoko bidea da. Oso goitik egiten dugu, hori delako motzena, eta Aleutianan irletatik pasatzen gara (Alaskatik gertu). Han tenperatura oso bajuak izaten dira (-20 gradu) eta dena jeltuta ikusten duzu.

### **Nora joaten zara gehienbat, non ibili zara gehien?**

Amerika eta Asian ibili naiz gehienbat, "Afrika" gutxi eza gutzen dut.

Azken bolada honetan, batez ere, Persiar Golkoan ibili naiz, Kuwaitera askotan joaten gara petrolio bila, baina hirian edo kaian sartu ere egin gabe. Bost edo sei miliari hodi baten bidez kargatzen dugu petrolio eta kitta.

Lehen aukera gehiago iza-

ten nuen hirietan egoteko, baina orain karga-deskarga lanak direla-eta, orduan izaten dut lanik handiena.

### **Golkoan ibiltzen bazara, tokatu al zaizu bertako gerra bizitzea?**

Ez, lehenengoan Yemenen nengoan, Itsaso Gorrian, eta ez nuen ezer ikusi, eta bigarrenean aukera eman ziguten joan ala ez joateko. Nahiago izan nuen beste norabait joatea; beraz, gerra ez dut ikusi, baina gerra barkoak eta submarinoak bai, asko ikusi ditut.

### **Polizoi edo itsas-lapurrik izatea tokatu al zaizu?**

Ez, inoiz ez. Herrialde pobre bateko kai batera iristen garenean segurtasun guardiak jartzen ditugu polizoiak ez sartzeko, guretzat arazo handia delako.

Polizoiak ez dituzte, normalean, inon jaisten uzten, eta haiek ez dote esaten nongoak diren eta bere lehenengo lana dokumentazioa urtara botatzea izaten da. Orduan, zurekin ibili behar dituzu, urtebete behar bada, haiekin zer egin jakin gabe. Hori arazo bat da kompaniarentzat; beraz, kontrolatu egiten da nor sartzen den baporera.

**PORTU EDEBIAK.** Agustinen iritziz, baporearekin sartzeko Sidney, Santander eta New Yorkekoa dira porturik politenak. Agustinen sartzia Sidneyn sartzen ikusi daiteke argazkian.



# AIAKO berri



EMANALDIA SORPRESA ETA GUTIL. Artista aliar batek ere parte hartuko du saio honetan.

## Poesia emanaldia

■ *Martxoaren 13an izango da, kultur etxean, eta bertan Mikel Markezek parte hartuko du Pako Aristirekin*

"TRIBUAREN HITZ GALDUAK" izenarekin aurkeztzen den ekitaldi hau esperimentazio bat da, egileek diotenez: hitza eta musikaren uztarketaz harantzago joan nahi duena. Horrekin batera, egungo egoera ere aintzakotzat hartzen dute, aldiro horrekin zerikusia duen zerbait prestatuz: satirak, bertso jarrak, eta abar...

Martxoaren 13an gaueko 10etatik aurrera izango den emanaldi honetan sorpresa bat ere izango da: Aiako artista bat plazaratuko de-

lako. Hain da Aiako Arrano Beltza Elkarteak antolatzen duen hirugarren ekitaldia Udalaren laguntzarekin, eta ziur gaude aurreko biak bezain arrakastatsua izango dela.

### KANTALDIA ALDAPA TABERNAN.

Baina aurrekoa ez da dohainik gozatzeko izango dugun ikuskizun bakarra, Aldapa tabernan martxoaren 20an eta gaueko 10:30etatik aurrera kantaldia izango delako zuzenean.

## Bi hitzaldi Goiz Argi aterpean

Goiz-Argi aterpean kultur ekitaldiak antolatzen dituzte, aldiari behin, eta, oraingoan, bi hitzaldi interesgarri prestatu dituzte.

Lehenengo hitzaldia martxoaren 26an izango da, eta bertan elikadurari eta gaixotasunari buruz hitz egingo du Edurne Yarzak.

Bigarren hitzaldia, ostera, apirilaren 23an izango da, eta Pili Zubiarrainek emango du honako gaiari buruz: herentziak eta testamentuak.

Bi hitzaldi horiek arratsaldeko 6:30etan izango dira.

## Udalaren oharra gas instalazioen errebisioari buruz

Honakoak jakinarazi nahi du Udalak:

- 1) Gas instalazioen errebisioa herritar bakoitzak eskatu beharko du, edo instalazioa egin zuen enpresak.
- 2) Lan horiek egiteko enpresa jakin batzuek daude, eta ez du balio edozein enpresak egitea.
- 3) Zalantzaren bat izanez gero, eta gai honetan ari diren enpresa iruzurgileen kopurua eta *trebetasuna* ikusita, zalantza zeko kasuetan Udaltzera deitzea gomendatzen du Udalak.

**JATETXEA  
KANUA  
RESTAURANTE**

\* Berhiko babarrun eta haragirik  
\* Etxeko sukalde goso eta absegina  
\* Haurrenzako menu berezia eta jolaslekua

Gozategi Enparaotza, 11 - AIAKO  
TLF. 943 83 43 22

**SEGA**

ezkontzak, bataioak,  
jaunartzeak

Tfnor: 943 83 07 16  
Erreka auzoa

**ARISTERRAZU**

**Jatetxea**

San Pedro Tfnor: 943 83 45 21

## Mozorro zomorro

**I**nauteriak atzean utzi ditugu, eta mozorroak gure garbarako kutxa gordetzeko garaia da orain. Mozorroak edo zomorroak; hala esaten die gure aronak egun seinalatu hauetan soinean jarri ohi ditugun estalkiei.

Hitz joko honetako ere bada bere esan-hia. Mozorroa gure kanpo-itxura aldatzen duen jantzia da eta jantzi hauek orijinaltasunak eta deigarritasunak sarridan zomorro itxura eranstean digu. Baina kanpotik dugun mozorroak lotura estua izan behar da gure sentimenduen grinarekin eta lotura horrek bilakatuko du mozorroa zomorro.

Bizi naizen herrian, Aian, ez da inauterietatikiko estimu handiegirik, baina Tolosa moduko herri batera inguratuz gero, inauterien argia begitaratzen zaigu. Hori dela eta, oso erraza da festa giroan barneratzea.

Gure mozorroa zomorro bihurturik, ez dugu inork ezagutuko gaituen beldurrik, eta hori lagungarria da elkarri gure sentimenduak azaltzeko.

Mozorroari dagokionez, norik berak hautatu, norik berak prestatu eta nor berak azaldutakoa izango da preziatuena; batez ere, mozorro zomorrotuaren jabearen aldetik. Ondorioz, mozorroaren alaitasuna hikoitza izango da, eramailearen printzek osoki argituko dutelako.

Inauterietan jantzi ohi dugun mozorroak definitzen duela esan dezakegu gure benetako izakera. Orduan arte azaldu dugun itxura izango litzateke gure betidaniko mozorroa. Egundain seinalatu hauetan soinean jarritakoak azalduko luke, benetan, ondoko gizartearen itzala deuseztuta, zein den gure nortasunaren aurpegi ezkutua.

*Eneko Balerdi*



ZORRONAK GAZTEI. Benjamin mailan, ezin hobetu dabil nerke-mutiken talde hau.

## Plaieroetako txapelketa

Azken txanpan sartua da dagoeneko 98/99 denboraldiko Zarauzko Hondartzako Futbol txapelketa eta tartean herriko hiru talde ditugu, Benjamin, alebin eta senior mailan. Hiru taldeetatik orain arteko onenak txikiak izan ditugu, jokatu dituzten partidu guztiak irabazi dituzte eta, gainera, gol sorta ederrak sartuz. Alebinak berriz, gora-behera han-

diekin dabilta: bi partidu irabazi, baina hiru galdu egin dituzte; hala ere, gogoz ari dira, beti hobetu nahian.

Eta handienei dagokienez, Irigarai koparako sailkatu eta lehen kanporaketa erraz gainditu arren, bigarren kanpogan geratu dira (parranda gehiegi ote?).

Hurrengo urtean beharko du.

### LABUR-LABUR

#### Podologia zerbitzua

Herrian podologia zerbitzua jarriko da. Hilean behin, larunbatez, eskainiko da eta 2.000 pta. kostako du. Ordua hartzeko udaletxera deitu behar da aurretik. Hurrengoak martxoaren 27an eta apirilaren 24an izango dira.

#### Erakusketa Aldapan

Aldapa tabernan argazki erakusketa berria dago martxoaren edira arte. Oraingoan, Mikel Arzamendi donostiarrarena. Gaia: Kepa Junkerak 98ko azaroan eskainitako kontzertu baten irudiak.

### ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko

TOLEDO ERZULEN 08 00 Mugikorra: 909-40 1214 / 909-40224

**Benta Berri**  
Ezkerreko murrak  
Aldapea, 14 Tfnoa: 943 83 42 75

**Aldapa**  
Taberna Tel. 943 89 00 56

# Jose Antonio Manterola

## Aiar bat Errusian

*Jose Antonio Manterola orain dela 44 urte jaio zen Zatarain baserrian. Bizimodua ez da beti erraza izaten eta batzuetan sekulako aldaketak ekartzen ditu; borren lekuko dugu gizon hau. Ikusmen arazoak zirela eta, orain dela 10 urte, Moskura joan zen tratamendua egitera. Horrek bere bizimodua goitik behera aldatu zuen. Hango hizkuntza, errusiera, ikasteaz gain, Errusiar Filologian lizentziatura lortu du Lomonosov Unibertsitatean 11 oboretzko aipamen eta dominarekin, nota zuten 35 ikasgaietatik 31 bikain eta 4 oso ongi atera zituelako. Gaur egun Tania bere emaztea eta biak ilusioz beteriko proiektuak dituzte esku artean.*

ELI LASA

### Zergatik hasi zen "abentura" hau?

Begietan arazoak ditutalako. Moskura joan-etorrian ibili nintzen hasieran; baina, azkenean, bertan urtebeterako gelditzea erabaki nuen. Urtea pasa ondoren, hizkuntzarekin moldatzen nintzen kalean hitz egiteko, baina zerbait gehiago sakondu nahi nuen. Horrela, batekin eta bestearekin hitz egin eta buruari mila buelta eman eta gero, unibertsitateira joan nintzen, han sartzeko azterketa gainditu eta gero.

**Hitz gutxitan esan baduzu ere, prozesu hau gogorra izango zen: hizkuntza berria, ikasteko ohitura beharbada galdua...**

Bai, hori guztia aktibatzea ez da oso samurra. Nik, haru joan baino lehen, EGA atera nuen; gero, unibertsitateko

akzesoa ere bai; eta, pixkanaka, ikasteko mundu horretan sartzen hasi nintzen. Dena dela, unibertsitateko lehen urtea oso gogorra izan zen, ezberdina zelako errusiera kalean hitz egitea edo uniber-

sitateko terminologia menperatzea. Nire taldean zeuden atzerritarren artean nik balarririk gainditu nituen asig-natura guztiak.

### Eta nola antolatu zenuen zure bizimodua Errusian?

Zailena hasiera izan zen. Errusiar institutu batean egon nintzen, eta han ikasleentzat zegoen erresidentzia batean hiru bat hilabete pasa nituen, gero etxe txiki batera aldatuz. Bost bat hilabete beranduago, Tania ezagutu nuen eta gauzak asko aldatu ziren; bera gabe, egin dudak guztia egitea ez litzateke pentsatzekoa ere. Eta azken zazpi urte hauetan han bizi izan naiz, tarteka hona etorritz, pasa den ekainean Errusiar Filologia karrera bukatu nuen arte.

**Azkar asko kontatu dituzu azken urteak, baina zure lehen inpresioa Mosku bezalako herri handi batean ahaztezina izango zen, ezta?**

Bai, hemendik joanda, hasiera batean, beldur pixka bat ere ematen du. 10 miloitik gora biztanle ditu, eta hasieran galduta ibiltzen zara; baina, dena bezala, denborarekin aurrera ateratzen zara. Okerrena hasieran hizkuntza bera izaten da edozeinentzat, eta gehiago ni bezalako baten-tzat, begietan arazoak ditutalako. Beste bat, nahiz eta hizkuntza gutxi jakin, seinaleak eginez edo molda daiteke, baina nik ahotsarekin konformatu behar nuen. Baina horrek gehiago motibatu ninduen, eta nik hizkuntzak ikasteko dudak erraztazuna, beharbada, oztupo horretatik da-

**TESINA DEFENDATUZ.**  
Moskuko Lomonosov Unibertsitatean iazko maiatzean tesina defendatu ondoren. Ezkerrean, tesinako tutorea, Komleb doktorea eta erdian, berriaz, aurkaria, Avalemkaya doktorea.



tor. Behin hizkuntza menpe-  
ratzen dugun garaian, galdetu  
eta Erronaca joaten dela dio  
esatera zaharrak, eta hala da.

### Karrera bukatu duzu, Joxe Antonio. Eta orain zer?

Azken bost urte hauek oso-  
oso gogorrak izan dira, ia  
mahaitik altxa ere egin gabe.  
Unibertsitatean zazpi ordu  
posa, eta gero etxera iritsi eta  
ezin dira kontatu zenbat ordu  
gehiago. Oso nekatuta buka-  
tu dut, eta orain pixka bat la-  
saitu egin nahi nuke, denbo-  
raldi bat Aian egonez.

### Elkarrizketa hau hasi aurretik komentatu didazu Errusiar-Euskera hiztegi bat egin nahi zenukeela...

Bai, Tania eta biok egin  
nahi genuke. Bera Historian  
lizentziatua da, eta editorial  
batean lan egiten du, erre-  
daktore. Orain, Eusko Jauria-  
ritzarekin eta Deustuko uni-  
bertsitatearekin harreman-  
tan jarri nahi dut aukera hori  
aztertzeko. Lan polita litzate-  
ke eta biok buru belarri sartu-  
ko ginatke horretan.

### Ez al da argitaratu horre- lako hiztegiarik?

Bai, bilbotar batek lehen-  
go urtearen bukaeran atera  
zuen, baina lotsagarria da:  
azkar egina, profesionalta-  
sunik gabe; informazioa falta-  
tzeaz gain, itzulpen asko oker  
daude. Hiztegi serioa egiteko  
garaia dela iruditzen zait. Ja-  
kinaren gainean nago hori izu-  
garrizko lana dela, baina egi-  
nez geto hor geldituko litzate-  
ke. Hango unibertsitatean  
ere interesatuta daude: nire  
tesina aurkeztu nuenean (eta

FAMILIA CIRIOAN.  
Aryzkan Tania,  
Jose Antonio  
eta Natalia,  
Tantaren  
alaba, agertzen  
dira.



ia 80 orrialdeko lana izan zen)  
idea hau jadanik buruan nuen,  
timluak berak adierazten duen  
bezala, *Euskeraren berezitasun  
linguokulturalak euskal-erru-  
siar hiztegi bati begira*. Hori  
defendatu nuenean, Moskuko  
unibertsitatea prest agertu zen  
teknika aldetik dituen erre-  
kursoak gure esku uzteko.  
Gertatzen dena zera da, eko-  
nomin aldetik egoera delika-  
tuan dagoela eta diru lagun-  
tzarik lortzea une honetan zai-  
la dela, nahiz eta irakusleek,  
nik tesina aurkeztu ondoren,

komentario ugari egin zuten,  
eta animatu ninduten dokto-  
regoa egitera hiztegiarekin  
hatera. Eta horrela daude gau-  
zak.

### Ez dirudi lan erraza, baina gogotsu ikusten zaitut.

Bai, biok ere animatuta gau-  
de. Tania euskara ikasten ari  
da, baina nik errusiera ikastea  
baino zailago izango du, nik  
heste aukerarik ez nuelako  
han; hala ere, asko saiatzen ari  
da. Dena dela, proiektu hau  
aurrera eramateko jende as-

koren laguntza behar da, tek-  
nikak eskaintzen dituen aban-  
tailak baliatuz. Badakigu ez  
dela lan samurra izango, bai-  
na ahaleginduko gara aurrera  
ateratzen.

### Bukatzeo, nola zaude osasunez?

Beno, nik daukadan arazo-  
a hor dago, *retinosis pigmentaria*  
du izena; horren ondorioz,  
begisareko zelulak hondorat-  
zen ari dira eta ikusmena gal-  
tzen ari naiz. Tratamendu-  
arekin prozesu hori makaldu  
daiteke, baina gelditzea zaila  
da.

Dena dela; eta arazoak ara-  
zo, nik garbi daukat aurrera  
egin behar dudala, eta horretan  
nago.

## 'Atera den errusiera-euskara hiztegia lotsagarria da: informazio gutxirekin eta itzulpen asko oker daude'

  
**TXINGURRI** luzen luze  
**LORAZANTZA**

- Aardakel iberrak eta marfesi menduak
- Niretzat zozkizak
- Uhartzak: siltakari iberrak eta marfesi menduak
- iberrak marfesi menduak
- Injuria eta ohikuenak eta teknikoak
- Silaroponak

97920 4411 21 21 100 24410  
892004 K/14 21 21 20 200 244112  
Tel. 943 81 21 14 - 943 81 21 21

  
**BIXOK**

Peluleria  
Solariuma  
Estetika

6 83 27 29

Gazte eta jubilatuentzako  
prezio bereziak

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

**KARKARA**  
943 83 15 27

ALDIZKARIAN

# Beti San Luis

*San Luis, Gran San Luis, Glorioso San Luis eta Nuevo San Luis baporeen ondorengoak ezin zezakeen Beti San Luis izena baino bartu. Angel Etxeberria aipatutako azken lau baporetan ibilia da, eta barekin bildu gara azken hamabost bat urtetan gidatu duen Beti San Luisen gainean jarduteko.*

IÑIGO FERNANDEZ

Askotan harritu egiten gara arrantzaleek oso urrutitik baporeak nola bereizten dituzten ikustean. Gehienoi oso zaila egiten zaigu baporeak bereiztea, baina San Luisak ezagutzea ez da hain zaila. Nuevo San Luis eta Beti San Luis antzekoak dira, anaiak izango balira bezala, txikiagoa zaharra eta handiagoa berria. Txapazkoak dira eta urdin ilunak, Kantauri itsasoaren antzera. Orioko bosgarren San Luis baporea, Beti San Luis, Santurtziko Zamacona astilleroan egin zuten 1972. urtean eta montajea, berriaz, Orioko Arostegin egindakoa du. Egin berrikan, hogeita hamabi metro luze zen baporea, baina, hogeitaz geroago, 1992. urtean, luzatu egin zuten, eta orain hogeita hamabost eta erdi metroko luzera dauka; zahalera hiru metro eta erdikoa du, eta altuera sei metro eta larogei zentimetrokoa.

Beste bapore guztiek bezala, itsasoan makina kilometro

eta ordu egindakoa da Beti San Luis. Tosta guinean ordu asko egiten dituzte marinelek eta bertan bizitako kontu eta istorio ugari izaten dute kontatzeko. Angeli ez zain horrela bat-batean pasadizurik gogoratzen, baina bai susto txar bat izan zuteneko hura: *Behin, Pasaiatik gertuzela, lema aberriatu zitzaigun, lemaren korrea; Orioko barran izan zen, eta bar-*

*kaitza jo gennen Amabirjinaren alde horretan.* Beti San Luis pixkat aboilaru omen zen behoko aldean; hala ere, sustoaz gain ez zen besterik izan.

## PATROI IZANDAKOA LEHORREAN

Angel Etxeberria izan da azken hamabost bat urtetan Beti San Luiseko patroia, baina datorren denboraldi honetan ez da berriaz joango, lehorrean geldituko da. Joan den azaroan, itsasoan berrogeita bi urte egin ondoren —azkar esaten da— jubilatu zen Angel. Ea aurrerantzean itsasoa faltan sumatzeko heldurra ez ote duen galdetu eta zera erantzun digu: *Berrogeita bi urte itsasoa ibili eta gero nazkatuta nago; orain bizi egin behar dut.*

*Lehorrean beste berrogeita bi urte egin behar ditut orain.*

Aurtengo neguan, itsasoan ibili beharrean, Zarauzko igerilekuan dabil Angel. Belau-nak behartuta joaten da igerilekura, eta bitxia da berrogeita bi urte itsasoan egin eta gero, gizon bat *eta orain igeri egiten ikasten dugun* esaten entzutea. Datorren udara ere Angelentzat ezberdina izango da, itsasoa hondartzatik ikustea beste kontu bat baita.

Bestalde, gaur egungo arrantzaren inguruan, Angelen ere uste du orain gazteek ez dutela itsasora joan nahi izaten, eta horren froga nabarmenena etxean bertan omen dauka, bere semeek ez baitute itsasora joan nahi.

**SANLUISAK.** Antzekoak dira, anaiak izango balira bezala. Txapazkoak dira eta urdin ilunak. Kantauri itsasoaren antzera. Nuevo San Luisen anaiak gaztea, Beti San Luis —argazkian—, luzeagoa da.



**Iraki Garate**  
Aseguru-agentia

**C C I**  
GARASA, GILVETI, LACOST Y CIA, S.A.

Aseguruak

Eusko Gudari, 17 (atzek.)-3. Tfnoa: 943 13 46 07

**ODITZ**



HOIJA ZABALEKO OINETAKOAK  
GIZON ETA EMAKUMEENTZAT

Tf 943 83 00 89

**ITZIAR**

Kirolak

Tf 943 83 31 03

# EUSKALDUN berriak



**ROSA CORRAL**

**R**osa Errioxan jaioa da, Valganon herrian. Hamar urterekin, ikasketak zirela medio, herria utzi zuen. Gaur egun Aian bizi da senarra eta bi seme-alabekin, eta Aiako medikua da.

Euskararekin bere lehen harremanak orain dela hamalau urte izan ziren, lan kontuengatik etorri baitzen Bizkaia aldera. Elormora, hain zuzen. Bere lanagatik, harreman pertsonalak sendotzeko eta Euskal Herrian bizi zela kontuan hartuta, euskara ikastea erabaki zuen.


Hasieran, Bizkaian bertan egin zuen lehen ikastaroa; baina, gero, behin Aiara etorrita, beste bi urtez ere aritu zen. Horretaz aparte, bere kabuz ere aritu omen da jendearekin praktikatuz eta irratia entzuten. Nahiz eta lantokian erdaraz egin, kontsultara etortzen zaizkion gaixoeekin eta lagun artean euskaraz aritzen da.

Euskara beste hizkuntza guztiak bezalakoa dela dio Rosak, zaila eta erraza, eskaintzen zaion denboraren, interesaren eta lanaren neurrikoa. *Hiruretatik asko jartzen baduzu, ikasten da. Bestela, asko kostatzen da.*

*Euskaraz idazteko zailtasunak ditut, ez dudalako landu. Hasieratik nahi nuen euskaraz bizitzea zen, eta ez nuen euskaraz idazteko behar handiegirik sentitzen.*

*Aian bizitzea ez da inolako abantaila, erabaki serioa ez bada hartzen. Gure etxean euskaraz bakarrik egiten da. Aukera izan nuen erdaraz bizitzeko, baina euskaraz egitea aukeratu nuen. Ez dut agiririk, ez titulurik, ezin dut inon frogatu ikasi dudala. Euskaraz bizi naitzela bakarrik dakit, eta hari nahikoa da niretzat.*

## GITARRAREN ARTEA • EL ARTE DE LA GUITARRA THE ART OF THE GUITARRE



PUNTAREN PUNTIA I  
CONTEMPORARY MUSIC MAKING IN THE BASQUE COUNTRY

aus\_Art\_records

E. BARANZANO • AIREAN

### ...THE BASQUE CLASSICAL LABEL

**K**itarra xumearen spinua jaso du Juan Rekartek kalera atera duen azken disko honetan. Bertan Aita Donostia, Jose de Azpiazu, Francisco de Madina, Felix Ibarrondo, Xabier Lasa, Jabier Busto eta Tomas Aragües konpositoreen lanak biltzen ditu, eta Oñatin udazkenean eginiko grabaketa eskaintzen zaigu. Eduardo Baranzano eta berak zuzentzen duen Airean laukotea dira interpreteak.

XX. mendeko musikariak dira autore guztiak eta oso musika klase diferenteak daude diskoan jasota: ez dira falta melodia herrikoiak, baina tartea ere badute Amerikako doinuek eta esperimentazioarekin lotura zuzenagoa dutenek ere, la denek mantentzen dute berezko goxotasuna eta gustu handiz entzuten dira. Felix Ibarrondoren *Cristal y piedra* da salbuespena eta besteekin kontrastea egiten duen lana, kitarraren tinbreak eta gainontzeko aukerekin jokatzeko ari delako oñatiarra.

Azpimarratzekoak dira guretzako Aita Donostiaren sei pieza: pianoko bertsiotan ezagutzen genituen baina, orain jakin dugu, berez kitarrarekin jotzeko egin zituen, jendeak errazago ikasteko, beharbada. Askok gustatu zaizkigu Azpiazuren lanak ere, mende hasierako musika amerikarrarekin lotura nabarmena dutenak. Aragüesen lanak, bestalde, freskotasuna du eredu.

Diskoa eskuratzeko idatzi: aus\_Art\_records. 12 pk 20810 Orio edo delitu 943 13 21 31 telefonora.

ANA G. DE TXABARRI

## ZORIONAK

### Herriko elkarteci

Azken boladan ugariak dira herriko elkarteak biltzen dituzten ekimenak: Bai Euskarari batzordea, Korrika batzordea, presoak Euskal Herritarzearen aldeko batzordea... Guztietan kolore askotako jendea dabil, hainbat elkarteren ize-nean, helburu jakin batzuk elkar lanean lortzeko.

Pozgarria da batasun hori ikustea, orain arte nor bere aldetik ibiltzea izan baita araua.

## ZORIOXARRAK

### Zubiko obrei

Badakigu lehen ere emanak dizkiogula zoriotxarrak herriko obrei, baina zubiarekin gertatzen ari zaizkigun komeriak ikusita, ale honetako zoriotxarrak ezinbestekoak dituela uste dugu.

Batetik, obrak oso atzeratuta daudelako, eta horrek udari begira ekarriko dituen kalteengatik; bestetik, Udalak presio gehiago egin behar duela uste dugulako sortzen ari diren arazoetan herritarren beharrak kontuan hartzeko beste ezeren aurretik.

# Zinegotzi aldaketa udaletxean

**D**uela hogei bost urteko otsailean oso egun gutxitan izan zen Orioko kronika 'La Voz de España' egunkarian. Ez dakigu ezer gutxi kontatzeko zegoelako izan zen edo berriemailea gaisotu edo oportetara joan zelako izan zen, Garrantzi handikoak ez badira ere, ondorengo berriak dira aurkitutako guztiak.

**ZINEGOTZI BERRIAK.** 1974ko otsailean zinegotzi batzuek bere ordura arteko lana utzi, eta beste batzuk sartu ziren beren ordean. Utzi zutenak hauek izan ziren: Ventura Barjacobá, Jose Iparragirre, Francisco Lertxundi, Juan Jose Lertxundi, Elias Molinero eta Leopoldo Bravo. Horien tokia ondorengo hauek hartu zuten: Joaquín Murua, Jose Manuel Atorrasagasti, Luis Azkue, Jose Maria Pérez, Teodoro San Sebastian eta Jose Maria Oliden.

**AIZKORA, KORRIKA APUSTUA ETA BASARRI.** Iruntxiberrin korrikalari aiarak Mindegia aizkolaria bikotea zuela, desafioa jokatu zuen Donezteben, Aierbe korrikalariak eta Arginarena aizkolaria osatzen zuten bikotearen aurka. Aizkolariek zortzina kana erdiko enbor ebaki behar zituzten eta korrikalariak zortzi kilometro korrika egin. Aizkolaria egur bat ebakitzen zuenean, korrikalaria lanean hasi eta hamar buelta eman behar zizkion 100 metroko frontoari. Printzipioz, desafioa otsailaren 10erako zen, baina egin zuen eguraldi txarra zela eta, zazpi egun beranduagora arte atzeratu zen. Azkenean desafioa otsailaren 17an izan zen, eta egun horretan ere oso eguraldi txarra egin zuen; beraz, Basarri ez zen ikustera joan. Basarrik guzti hori aipatu zuen bere kronikan, eta orain dator detallerik xebearena, irabazlea nor izan zen jakin gabe geratu gara,

orain dela...  
**25**  
URTE

Basarri, berak bere kronikan aitortu zuen bezala, ez zitzaizkioke gustatzen ikusi ez zuenari buruz hitz egin edo idaztea.

**AZOKAKO PREZIOAK.** Denok dakigu bizimodua egunetik egunera garestiagoa dela, eta hori horrela dela adierazten digu garai hartako prezioak ikusteak. Oraingo prezioak jakinda harrigarria egiten da ikustea orduan bixigua ez zela oso garestia, beste arrain batzuekin alderatuz gero, behintzat. Hona hemen orduko prezioak: Arrautzak, 46-48-50; laranjak, 8-14; mandarinak, 16; sagarrak 16; udareak, 30; platanak 32; tomateak 30; letxuga, 6-8-10; azelgak, 10; porru dozena, 30; intxaurrak, 90; oilaskoa bizirik, 70 kilo; oiloa bizirik, 40 kilo; behi gazta, 130; ardi gazta, 180; legatza, 140; mediana, 120; bixigua, 90; perloia, 55; paneka, 40; oilarra, 140; txitxarroa, 25; txipiroiak, 110.

Beste aldetik, eta prezioa ez badakigu ere kronikan aipatzen zen otsailean anjula asko harrapatu zela erriean.

**IAJOTZAK ETA EZKONTZAK.** Orain dela 25 urte jaiotakoak: Maria Pilar Nuñez Rodrigo, Julita Rebollar Herro, Inigo Solaberrieta Lertxundi, Arkaitz Agirre Manterola, Imanol Garmendia Gozategi eta Maria Jesus Genoba Sarasua. Ezkondutakoak: Teodoro Martikorena eta Antoñita Pinto, Florentino Arrizabalaga eta Anparo Garate.

**LEUNDANEKO PELIKULAK.** Leundanean pelikula hauek eman zituzten: *El Espejo de los espías*, *El Bastardo*, *Ojo por ojo*, *Las 24 horas de Le Mans*, *El gallo de oro*, *El hombre enmascarado*.

 Akobe

**Juan Albizu**  
elektragarailuak

CARFRA Markako  
sukaldeko  
altzariak!

Abeslari kalea, 6  
Tfnua: 943 83 12 49

**JUANTXO**  
harategia

Herrera txekarra,  
Especialitate: tripakak, adrikak,  
etxeko produktua...

Tfnua: 943 83 18 37

**Carmen**



**Arraindegia**

Tfnua: 943 83 05 37

**ANARRA**



IBAI-ONDO, 2 - Tel.: 943 83 21 60

**DORROSORO**

**JANARIDENDA**

JANARIDENDAK

**IRADI**



**AHOIKULARITZA**

Aita Lertxundi, 33 Telefax 943 13 46 96

**DIVINA BOUTIQUE**

*Sure gustado asomak*

Estropaleri kalea, 12 - Tel. 943 13 26 16

## JAIOTAKOAK

## ORION

Ator Atarrasagasti Aizpuru, urtarrilaren 27an.  
 Inigo Luenda Legara, otsailaren 2an.  
 Eneko Oñova Lizaso, otsailaren 8an.  
 Mikel Etxarri Velez, otsailaren 13an.  
 Alazne Arriola Larreta, otsailaren 15an.

## AIAN

Eneritz Inurtagoiena Amuti, urtarrilaren 267an.  
 Imanol eta Ane Sarasola Erasun, otsailaren 8an.  
 Ander Lasa Egurza, otsailaren 14an.  
 Oier Oñozola Zamaiz, otsailaren 14an.

## HILDAKOAK

## ORION

Groveva Elizaguirre Peña, otsailaren 12an.  
 82 urte.

## AIAN

Juan Mari Azpeltia Jauregi, otsailaren 7an.  
 89 urte.

## EZKONDUTAKOAK

## ORION

Juan Mari Irastorza eta Marie Arriola, otsailaren 8an.  
 Martín Sagarna eta Itxar Osa Egiar, otsailaren 20an.

## AIAN

Otsailaren ez da ezkontzarik izan.

## TESTIMONIOAK



## Ander Lasa Egurza

Ander Lasa Egurza, otsailaren 14an jaio zen Aian. Argazkian, goxo-goxo etzanda ikus dezakegu mutikote eder hau. Zorionak gurasoei.

OHARRA: Aurreko alean hanka sartze bat egin genuen eta gaizki jarri genuen atal honetako haurraren izena. Benetako izena hau da: Andoni

## Uranga Solaberrieta

Zuek ere zuen seme-alaba jaioberriren argazkia—edo ezkontzakoa—txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bidali eta jarriko dugu. KARKARAREN buzoian utz dezakezue edo, bestela, taldekoren bati eman. Lehenbizi ailegatu zaigunak izango du lehentasuna.

## ZAINZAKO BOTIKAK

## MARTXOA

1ean Barrenetxea  
 2an Uranga  
 3an Azaldegí  
 4an Zulaika  
 5ean Olaiizola  
 6 eta 7an  
 Mutiozabal  
 8, 9, 10, 11, 12,  
 13 eta 14an Lasa  
 15ean Azaldegí  
 16an Zulaika  
 17an Olaiizola  
 18an Mutiozabal

19an Azaldegí  
 20 eta 21ean  
 Uranga  
 22an Zulaika  
 23an Olaiizola  
 24an Mutiozabal  
 25ean Barrenetxea  
 26an Uranga  
 27 eta 28an  
 Azaldegí  
 29, 30 eta 31an  
 Lasa

## HELBIDE ETA TELEFONOAK

AZALDEGI: Urdaneta kalera, 8. 943 13 31 81  
 ZABALTE  
 BARRENETXEA: Gipuzkoa kalera, 17. 943 83 23 98  
 ZABALTE  
 LASA: Herriko plaza, 943 83 09 36 Oñati  
 MUTIOZABAL: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70  
 ZABALTE  
 OLAIIZOLA: S. Eranzoko kalera, 16. 943 13 38 14  
 ZABALTE  
 ZULAIKA: Bizkaia kalera, 41. 943 13 39 94  
 ZABALTE  
 URANGA: Zigorba kalera, 17. 943 13 40 19  
 ZABALTE

Bataioak  
 Jaunartzeak  
 Despedidak  
 Ezkontzak

ORTZAİKA  
 JATETXEA

Tfnoa: 943 83 32 51/83 30 46

Ortzaika

Ortizategia  
 DONIBAIANE

Abeslari, 4 - Tel.: 943 13 41 70

Tragoxka  
 Pub

Arriaga, 11  
 6 943 13 08 25

**NIRE HONETAN**

**Zubiko 'lanak'**


Udaletxeko balkoitik ikusi genuen, eta barrez aritu ginen: hantxe zeuden hiru gizon handi, buzo urdina eta kaskoa jantzita, zutik, behin behineko zubi berriaren barandara igota, zain, pasaerako automobilerik begia kendu ere egiri gabe. Halako batean, ilarako azken automobila pasatzearekin batera, salto egiten zuten hiru gizonek zubi gainera, eta, segituan, soldaduraren txinpartek gorritzen zuten ibaiaren ur azala. Handik lasterrera, bestaldetik zetozen autoak bozina joka hasten zitzaizkien hiru gizonen; alegia: enbarazutik kendu eta pasera lagatzeko, nahikoa denbora bazeramateka zain semaforoan, gero haien festan ibili behar izateko. Hiru gizonak, eskarmentuak bakarrik ematen duen patxadarekin, soldadura utzi eta berriro barandara igozten ziren, lasai arraio; eta hantxe egoten ziren, ostera ere, pasaerako automobilerik begia erantsita, bizitzan beste zereginik ez duenaren jarrera sosegatu ederrean.

Arkupe elkarteok etorri zitzaizkidan orduan gogora. Urduri eta haserre dabilta Arkupekoak, arrazoi osoz, bateko zein besteko obrek bezeroak uxatu egiten dizkietelako; lehendik ere zaila zeukaten panorama are eta gehiago belzten ari zaielako egunetik egunera. Horren aurrean, zubiko gizonen patxadak kontraste latza egiten du: Arkupekoak —eta herritarrek, oro har— presa daukate eta lanak arin bukatzea exijitzen dute; administrazioak, ostera, makal erantzuten dio premia horri.

Gauza batzuk ez dira sekular aldatzen.

Jabier Zabaleta

**KANPOAN**  
**daudenak**



**Tibur Agirre Arostegi**

Tiburrek berrogei urte ditu eta bost urte darama Arkaia herrian. Arkaia Gasteiztik bost kilometrora dagoen herri txiki bat da; 100 biztanle baino gutxiago ditu. Aita Otazukoa zuen, Arkaia ondoan dagoen herrikoa eta, txikit, urtero joaten ziren udako oporretan. Tiburri asko gustatzen zitzaion toki hau. Osabaren baserrian egoten ziren eta oso giro polita izaten zuten. Geroztik, tieti izan du baserri batean bizitzeko gogoia eta Arkaiara lortu du helburua betetzeko.

Oso toki lasaia da eta baserri giroa dago, nahiz eta baxlet batzuk ere badiren. Baserria handia da eta ondoan baratza dauka eta baita fruta arbolak ere.

Baserri gainean, teilatuan, beleta moduan, arraun handi bat dauka eta, gainean, traineru bat, arraunlari eta guzti, Pello Arregik, lehengusua zenak, egindakoa. Urrutitik antzematen da zein den Tiburren baserria.

Arkaiara erromatarren garaiko hondakin batzuk aurkitu zituzten orain dela hamabost bat urte, eta jende asko joaten omen da ikustera:

“  
**Orioz asko gogoratzen da, estropada garaian batez ere, eta baita Goenkale ikusten duenean ere.**

Aspaldiko trenbide zahar bat ere berriro egin dute, bidegorri moduan. Hau Gasteiztik Estibaizteko monastegiaino doa eta, Arkaiatik gertu pasatzen denez, jende asko ibiltzen da bertan, bai oinez, bai txirrindaz.

Orioz asko gogoratzen da; estropada garaian batez ere, eta baita Goenkale ikusten duenean ere, oriotar asko agertzen baitira.

Itsasoa faltan bilatzen du eta Orioko giroa ere bai; desberdina baita Orioko arrantzale eta taberna giroa eta Arkaiakoa.

Orioa noizik eta behin etortzen da, baina egunean bertan itzultzen da Arkaiara. Hoiakoetan lagun asko ikusten du eta askok esaten diote bazkaltzen edo afaltzen geratzeko, baina eziri denekin kunplitu.

Baserrian herriko oroigarri moduan Kortaren kamiseta bat dauka, izerdia eta guzti, kuadro batean sartu eta paretean zintzilik, Bilboko estropada bat irabazi ondoren Jose Luisek emandakoa. Baita Salsamendi III.ak erabiltako bi pala ere. Baserriaren lehengo jabea, pilotaria baitzen, Jose Mariarekin ibilia.

**KELER**

**GURE HERRIKO GARAGARDOA**

**Petekeria eta estetika mirtoa**

**ZSS**

- Tintak, argiztapenak eta kolorazioak naturalak
- Berrizkoak eta berrizkoak
- Arazak erabiltzen
- Peaktura
- Depilazioa

**Jon Bikelero, 3. Tel: 943 63 31 70**

**ZUMINTZA**

- *Terapias*
- *Estetika*
- *Depilazioa*
- *Sauna*

**Tel: 943 63 17 46**

# 2003. urtean, A-8 AUTOPISTA DOHAINIK

*Edo horrela izan beharko luke, behintzat. Azken denboraldian asko bitz egin da Bilbo-Behobia autobide-rako Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek ipini nahi duten bidesari sozialari buruz. Baina hori gozoki bat besterik ez da 'A-8 Autobidea Dohainik Plataforma' ren iritziz, jendearen arreta beste zerbaite-tan jartzeko trikimailua.*

M. EGIMENDI,  
AIZU ALDIZKARITIK HARTUA

Izan ere, argi eta garbi dio Estatuko Boletín Ofizialak, autobidea esplotatzeko epea bukatzen denean, herriaren eskuetara pasatuko dela A-8a. Eta hor dago koska, autobideak oraindik Madrilen Kontentzia baitira. Hori dela eta, gaur egun Foru Aldundian prestatzen ari diren errepide horri buruzko guztia legez kanpoko da, ez baitira nor ezer erabakitzeke. Bestalde, A-8 autobidea egin zenean, jabetza pribatuko lurak desjabetu ziren, herriaren onura eta ongizatea norberaren interesen gaintetik zeudela argudiatuz; gaur egun, berriz, herriaren onura ahaztu eta diru-interesak inposatu nahi dizkigutela gogoratzen du Plataformak.

1997ko otsailean sortu zen Eibar aldean A-8 Dohainik Plataforma. Bere burua gizarte mugimendu demokratiko, zabal eta autonomo gisa definitzen du, eta bidesaririk gabeko A-8 autobidea lortzea du helburu bakarra, horretarako hainbat gizarte sektoretako jendea elkartzuz eta eztabaida soziala bultzatuz. Ez da kasualitate: Plataforma Eibarren

sortzea, cibartarrek beti erabili behar izan baitute autobidea Donostiarako zein Bilborako joan-etorrietan, baina mugimendu soziala zabaldu egin da eta dagoeneko talde askok Plataformaren helburuekin bat datorrela erakutsi du.

## HIRU ARRAZOI DOHAINIK IZATEKO

Hiru arrazoi ematen ditu Plataformak autopista debalde izateko: herriaren onurarako errepidea dela, N-634 errepidea ez dela autobidearen alternatiba, inondik ere, eta bidesariak dakarren kostu sozial eta ekonomikoa. Are gehiago, Plataformaren iritziz, A-8 autobideko bidesariak erabiltzaileak diskriminatzen ditu: Espainiako beste autonomia erkidegoetan autobide azkar garrantzizkoenak bidesaririk gabekoak baitira, baita Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) beste zenbait eskualdetakoak ere. Esate baterako, Espainian ordaindu behar diren errepideak %1,6 dira eta EAEn, %8,5. Bidesariaren aurkako arrazoiez gain, bidesari hori desagertzearen onurak ere ez dira gutxi: inguruko herritarren bizimodua hobetzea, lanpostuaren eta bizilekuaren arteko joan-etorria

erraztuz, sektore ekonomiko guztien kostuak merketzea...

Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek 1998an ezarri duten bidesari soziala iruzurra da Plataformaren ustez, ez baitu 2003. urtean autobidea dohainik izatea aurreikusiten. Gipuzkoako garraio diputatuak adierazi zuenez, 2003. urtetik aurrera bidesaria oraindik ere merkeagoa izango da; baina, era herean, irabaziak lortu behar dira beste errepideetan inbertitzeko, bidesaria kentzea ez zaigu burutik pasatu ere egiten. Baina A-8 plataformak aurreikusiten du autobidea ordaintzen jarraitzeaz gain, errepide berriak ere ordaindu beharko direla eta, azken finean, irabazi ekonomikoa aterako dela autobidearen erabiltzaileen kontura: eta nori ateratzen du ira-

bazia? Bada, finantza enpresek, enpresa eraikitzaileek, porlan enpresek eta harrobiek. Ez dugu ahaztu behar, hala ere, Foru Aldundiek ezin ditela inolako kontzesiorik eman enpresei, momentuz behintzat, ez dutelako erabakiak hartzerik, ez kompetentziarik, gai horretan. Diru kontuak direla eta, Plataformaren esanetan, azpimarratu beharra dago azpiegitura hau negozio boro-bila dela. Datuak argiak dira: Europistasek 1996. urtean 10.943 milioi pezeta irabazi zituela aitortu zuen. Baina herritarrok 1971n hasi ginen bidesaria ordaintzen, 2003. urtetik aurrera dohainik izango zelakoan. Beraz, A-8 autobideak azken urteotan ordaintzen jardun dugunona izan behar du. Autobide hori aspaldi dago ordainduta.

PROTESTAN. Eguzki talde ekologistakwik Diputazioaren aurrean.





## Mozorroak euripean

**O**rain dela hogeita hamar bat urte egin zen fotografia hau. San Nikolas festetako dela uste dugu eta priotar mordoa agertzen da, batzuk mozorrotuta eta besteak mozorrotu gabe. Eusko Gudari kalean egin zen eta, artean, galtzarriak zituen zoruari.

### LEHIAKETA

- 1.- Argazkian azaltzen diren bi txapelgorrien eta txakurrarekin dihoan txakeroaren izen abizenak nahi ditugu.
- 2.- Laku ikusgarriak aipatzen ditu Agustín Lizasok elkarrizketan. Galdere: Zein dira eta non daude?

Erantzunak martxoaren 26rako bidali behar dizkiguzue, helbide honetara: KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutui lehiaketa, Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara). Asmatzaileen artean afari bat zozketatuko dugu. Afaria Itxas Ondo jatetxean izango da.

### AURREKO IRABAZLEA

Ez dago. Baitirudi ez dela herriko jendea aurreko aleko argazkian azaltzen zena, inork ez baitigu idatzi eskatzen genuen informazioa emateko. Beraz, irabazlerik ez. Lastima!



## Eguneroko menuak

Kuia kalea, 7 - Tfno. 943 13 11 79 - 20810 ORIO (Gipuzkoa)

## "Olatua batzutan uste ez dala etortzen da-ta..."

**Eusko Gudari guztin azkenengua zan, nik ezautu nuna, Xalbardiñeneko etxe ori, gu bizitu giñana. Ordun in zuen, zea, Villa Josefako etxia, lengo txikiya nola zan? Orain nola zea do... Ginasio ori zer da ba?**



JESUSA IRAOLA  
81 urte

Xalbardiñekua azkenengua zan; gainontzen Villa Josefakoa. Villa Josefako Lorentzan launa zan gure Juanita, oso urruti gelditzen zan, launtzea etortzen zi-tzaixkan. Gure etxian aurren futboleko kanpoo zan (Loretxu tabernaren parcan), laundiya eta ederra, gañea.

Ordun oso urruti ikusten zan plaiá. Eta plaián zeuden bainuetxia, orain DYA co-teaneko ortan, eta traineru-etxia, orain kanpiñen daon beste txabola ori; traiñeruk gordetzen zian or, urte guztin. Nere amak esaten zun maria beian zeonen an beian bañatzen ziala, bañuetxia orregatikan zan ua; aldatuta an inda bañatzen ziala, eta maria goian zeonen txabola ortan aldatze ziala eta bañatu. Klaro, maria beraka jexi da, eskollera eramán duen bezela.

Barrako aurreneko obrak ez, asia zeon orduako, baino nik ikusi ditut azkenengo, orain bukatuko, eskollera bukatu eta murua in duen obra au baino leno, or lau bat bier luzatu zuen eskollera. Baiño intzazu kontu or lanen jarduten zian zortzi-amar hilabeten... Trenbideko railak bezalakok jarri eta zaldiyakin karriatzen zuen karro baten bestaldeko arrobotikan artu eta camaten zuen arriya. Aiyek urtebeten jardundia zenbat metro luzatuko zuen ba eskollera? Asko ez.

Nik ez det ezautu traiñeruk. Nere aitonak esaten zun traiñerun juten ziala arrantza, Frantziko kosta-eta. Itsasoa atreatzen zanen, baten batek esan: *¡ an salto in di!*, arraiya zala, *an txiak*, eta *¡ ixilkan conai etorrikoak oncata* esaten omen ziyon besteak aldamenetik, bestela areaiño arraunen in ber. Esaten zun, aurre-

neko baporek intzianen emen txiki zian, ikatzakin ibiltzen zianak, eta nola oituk zeuden traiñerutikan arrayak arrapatzen, baporen traiñerua beakin ematen omentzuen; oitu bitarten izango zan. Etxa in bertzanen, saria bota bertzanen, arraya arrapatzeko, traiñeruakin iten omentzuen.

Nere anayak galdu zian veintidos de setiembre, milla beatzi-reun ta berrogeitamabigarren urten. Eguerdi arten zan; gasoilla falta zun, eta gasoilla ordun artu bertzan Oriyon. Ordun etzekin Donostin edo Getarin arteak. Donostin sartu zian, -ez dakit arrai gutxi izango zuen-edo-, Donostin zian beinpein, eta gasoilla falta zuen. Oriyoa etorri bertzala gasoibilla, eta sartzeko modun zeola; itsaso aundiya omentzan oso, baño sartzeko modun zeola. Ordun itentzan; bat sartzen-tzanen barrera, arrek ibxoín itentziyon besteik baldin bazetorren; ka npon bestia, *orain sartu leike* ta alkarri seña in eta itsaso bat pasatzen zanen bestia etorri arte tartia ematezun. Ola pasatze zian, olatuai iesi. Sartu zan Iñarran bapore bat: Ave Maria edo Aita Guria, eztakit, bi bapore zituen ayek. Ori barreren omentzeon eta guriai gero seña in sartzeko. Seña in, baño olatua batzutan uste eztala etortzea-ta... kriston olatua etorri. Buelta emantziyon, utzi zun bekoz-gora. Airen baporía, baño bekoz-gora. Eta bodegan bost lagun bargeneri, bizik. Baporía pixkat baztertu, eta eztakit gero ze intzuen; zulañu-o, zeatzeko, buelta emateik eztzeon arei itsason-ta. Nere anai bat segitun ekarri zuen moila, baño eztzan zeatu, erreanimizyua-ta intzizkiyonen baño eztzan zeatu; eta bestia, bestia andik eztakit zenbat egunea gorputza azaldu zan.

Bost hiltzian or.

Batzuk mollan-eta, geo beste baporía artu eta ekarri zun gure Andresen gorputza-ta, geo beste batzuk bizik atea zian-ta, ayek jasotzen, zean-da... Baporía Txurruka aldeá uste det emantzuela, eta ori camaten zabiltzala-re kriston eskapa uste det intzuela beriz. Klaro, eske onbesteko baporía donen utza eta barreren gizonakin, eztakazu nai dezuna ltekan.

## ITURRIOTZ-AZPI-ATERPETXEA



- \* Eguneroko menuak
- \* 100 lagunentzako jangela
- \* Logelak literakin
- \* Urte guzian zabalik

**ITURRIOTZ-AZPI ATERPETXEA**  
(Iturriotz ko benta rogaruan)

Tel.: 943 89 04 89 - AIA

